

**Ondarraren
lana ezagutzeko
eskaintza**



Kultura >> 14

**Irurtzngo antzerki tailerrak obra
mustuko du gaur: De tontos y...
otras especies. Igandera bitartean
lau emanaldi egingen dituzte**



Kultura >> 14



Lilasterketara!

>> 11



Txistua antzokira

>> 15

**Uharteko
haur eskola
Dindaiak
kudeatuko du**

Pausoka haur eskolan 0 eta 3 urte arteko 11 ume daude. Euskara hutsezko zerbitzua eskaintzen du >>7

**Udazkenerako
Plazaola bide
berdea
Irurtzunera**

Maiatzean hasiko dira Mugiroko lanak. Haiek despedituta Andoain eta Irurtzun artean ibili ahalko da >>5

**Bakaikun
gaztainondoak
aurrera
egiteko lanean**

Herritarren artean interesa sortu du gaiak eta lan taldea sortzeko deialdia egin du udalak >>7

**UEMAK 22ko
manifestaziora
deitu du**

Gobernuak udalak euskara sustatzeko diru-laguntzarik gabe utzi dituela salatzen >>5



**Mariñelarena
komatik
atera da**

Entrenatzen ari zela min hartu zuen >>20

**Duintasunaren
Martxa
asteazkenean
Sakanan**

Murritzetak salatuko dituzte >>9

**Elkarrekin
bidea egiten**

Denon ahotsa
behar dugu,
egin zaitez
**Komunitateko
kide**

GUaiXE.net

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu
gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

GURE
REMOVE
PLANA

%20^{ra}
arteko
deskontua

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Alazne
ZORIONAK Alazne!!
Oso ongi pasa. Etxeko-
en partez. Muxu handi
bat.



**Lexuri
Lazkoz Ruiz**
ZORIONAK printzesa!! Mar-
txoaren 19an 6 urte beteko
diutzu. Egun zoragarria
pasatuko dugu familia eta
lagunekin. Muxu bat fami-
liaren partez.



**Lexuri
Lazkoz Ruiz**
ZORIONAK preziosa!! Asteaz-
kenean, 19, 6 urte beteko di-
tuzu. Egun ona pasatuko dugu
zurekin eta sei muxu handi,
mua eta mua. Lizarragako eta
Arbizuko familiaren partetik.



Naroa Bereciartu
Etxeko sorgintxo
haundia egiten ari zai-
gu. Muxu asko Jokin eta
gurasoen partetik.



Onintza eta Lexuri
Eskoziaa o Txinaa faten bazarie de,
etxien txokolatie ez da faltako!!!
ZORIONAK udaberri atariko larrosei!!!



**Iosu
ZORIONAK** guape-
ton!! Zure lehenbiziko
urtebetetzean, muxu
asko aiton-amonen
partez.



**Iosu Bengoetxea
Txeka**
ZORIONAK zure le-
hendabiziko urtebetet-
zean familiaren par-
tezi!!



Urko
ZORIONAK Urko!!
Eider, Unax eta Anairen
partetik muxu handi
bat.



Urko
Hurrengo 18an, 15 ur-
te!! Zoragarria izan da
urte hauek zure ondoan
egotea!! Aita eta ama-
ren partetik.



**Gurutz Goikoetxea
Irisarri**
ZORIONAK ta URTE-
ASKOTARAKO! Altsasu
ta Urdaingo familien
partetik ongi pasa eguna.

**Bazkideek
deskontua**

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

marsuak

14-20

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Pol Mc Adaim. Martxoaren 14an,
ostiralean, 22:30ean Etxarri
Aranazko Derry tabernan.

Hastapenak. Martxoaren 15ean,
larunbatean, 20:00etan Altsasuko
Iortia kultur gunean. **Burundar
txistulariak.**

Porco Bravo+D-Tox. Martxoaren
15ean, larunbatean, 23:00etan
Altsasuko gaztetxean.

Dantza

Spaceko zarama. Martxoaren
16an, domekan, 17:00etan
Altsasuko Iortia kultur gunean.
Krego-Martin dantza.

Antzerkia

Pirata Garrapataren abenturak.
Martxoaren 14an, ostiralean,
18:30ean Ziordiko liburutegian.
Patata tropikala.

De tontos y otras especies.
Martxoaren 14an, ostiralean,
20:00etan eta 22:30ean. Martxoaren
15ean, larunbatean, 20:00etan eta
martxoaren 16an, igandean
19:00etan Irurtzongo kultur etxean.
Irurtzongo antzerki tailerra.

Zinema

La piedra de la paciencia.
Martxoaren 14an, ostiralean,
21:45ean eta martxoaren 16an,
domekan, 20:00etan Altsasuko
Iortia kultur gunean.

La flor de la vida. Martxoaren 14an,
ostiralean, 22:00etan eta martxoaren
16an, domekan, 20:10ean Altsasuko
Iortia kultur gunean.

La vida de Adelle. Martxoaren
20an, ostegunean, 22:00etan
Altsasuko Iortia kultur gunean.
Emakumeak doan.

Dokumentalak

Karakorum neguan. Martxoaren
14an, ostiralean, 22:00etan Arbizuko

Argibidea elkarteak. **Alex Txikon.**

**La OTAN, el brazo armado del
imperio.** Martxoaren 15ean,
larunbatean, 19:00etan Etxarri
Aranazko gaztetxean. **Askapena.**

El ejercito secreto de la OTAN.
Martxoaren 16an, domekan,
19:00etan Iturmendiko auzogelan.
Askapena.

La revolución de los saris rosas.
Martxoaren 20an, ostegunean,
19:30ean Olatzagutiko kultur etxean.
Mati Cuestarekin solasaldia ondoren.

Mendi irteera

Ziga-Lantz. Martxoaren 16an,
igandean, 7:00etan Olatzagutiatik
abiaturako da autobusa. **Sakanako
Mendizaleak.**

Aralar. Martxoaren 16an, domekan.
Altsasuko Mendigoizaleak.

Plazaolako ibilbidea (Lekunberri).
Martxoaren 16an, igandean,
9:30ean Etxarriko ikastolatik. 6 km.
Sakanako ikastolen mendi taldea.

Txirindula irteerak

Lubierri-Irtzako bordak.
Martxoaren 16an, domekan,
8:30ean Altsasuko Zumalakarregi
plazatik eta 9:20ean Bioitza
kanpinetik. 49 km. **Burunda mendi
bizikleta taldea.**

Erakusketak

Pintura eta eskultura. Martxoaren
21era arte, Urdaingo Kaluxa
tabernan. **Angel Antonio Agirre.**

**Mayar emakumeak,
duintasuneko koloreak.**
Martxoaren 23ra arte, Irurtzongo
San Martin jubilatuek elkarteak.

Pintura erakusketa kolektiboa.
Martxoaren 30era arte Irurtzongo
La Tahonan eta Pikuxarren.

**Saiak, elfoak, marioirratzak,
gizonak eta emakumeak.**
Apirilaren 5era arte, astegunetan
18:30etik 21:00etara eta domekan

19:00etatik 21:00etara Altsasuko
Iortia kultur gunean.

Hitzaldiak

**Emakume maiak: duintasun
koloreak.** Martxoaren 14an,
ostiralean, 18:30ean Irurtzongo
jubilatuek elkarteak. **Ekologistak
Martxan.**

OTANI buruz. Martxoaren 14an,
ostiralean, 19:00etan Altsasuko
Iortia kultur gunean. **Askapena.**

**Nafarroa Aldatuz, Erregimenaren
amaiera bultzatuz.** Martxoaren
14an, ostiralean, 19:00etan
Altsasuko Iortia kultur gunean.
**Hizlariak: Asun Fdz de Garaialde eta
Aitziber Sarasola.**

Literatura

Amaren eskuak. Martxoaren 14an,
ostiralean, 19:30ean Olatzagutiko
liburutegian. **Karmele Jaio.**

**Lurraren memoria: La memoria
de un pueblo a través de la
literatura.** Martxoaren 20an,
ostegunean, 17:30ean Etxarri
Aranazko kultur etxean. **Hizlaria:
Toti Martinez de Lezea.**

Tailerrak

Euskararen arnaguneak.
Martxoaren 15ean, larunbatean,
10:00etatik 12:00etara Etxarri
Aranazko kultur etxean. **UEMA eta
EHE. Aurretik izena eman.**

Bestelakoak

**Osasunaren Autogestiorako II.
tailerra.** Martxoaren 16an, domekan,
Altsasuko kaputxinoen komentuan
11:00etatik 14:00etara eta 15:30etik
17:30era. Leire Saitua. **Sakanako
Asanblada Libertarioa.**

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira!
Martxoaren 14an, ostiralean,
20:00etan Lakuntzako, Arbizuko
eta Etxarri Aranazko plazetan,
elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira!
Martxoaren 16an, domekan,
20:00etan Altsasuko plazan,
elkarretaratzea.

**Sakanako Langabetuen
Asanblada.** Martxoaren 17an,
astelehenean, 15:30ean Altsasuko
Gure Etxea eraikinean.

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

beleixe ^{107.3 FM} *online*
www.guaixe.net

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA

ASTEKO ERREPASOA:
albisteak, kirolak,
Aralar Txirindulari Taldea,
Burundar txistulariak...

Esataria: Alfredo

Aralar Txirrindulari Taldea 2014



Aralar, familia handitzen doa. Aralar Txirrindulari Taldea Klubak larunbatean aurkeztu zuen 2014 denboraldia, Uharte Arakilen. Aurten 35. denboraldia beteko du Aralarrek. Lakuntzan sortu zen taldea, Joxe Andueza presidente zela. "Eta ilusio berberekin jarraitzen dugu" adierazi zuen egungo presidente Javier Etxarrik. Klubetik 6 txirrindulari profesional atera dira, Garziandia, Arrieta, Egoi, Verdugo, Etxarri eta Larralde, "eta emaitza horiek bide beretik lanean jarraitzeko eta hobetzeko indarra ematen digute" gaineratu zuen Etxarrik. Aurten 32 txirrindulari izanen ditu taldeak, horietatik 5 berri. "Gogo eta ilusioarekin entrenatuz gero, amets guztiak gauzatuko dituzue" animatu zien Etxarrik.



Jubenilak (5): Asier Olló, Adur Etxezarreta, Eneko Unanua, Amine eta Izai Mauleon. Zuzendariak: Iñaki Mauleon eta Xabier Lizarraga.



Kadeteak (7): Gorka Avella, Gorka Arbizu, Oier Larunbe, Luis Beraza, Unai Zubiria, Patxi Lopez eta Xabier Maiza. Zuzendariak: Iñaki Migel eta Iraitz Goñi.



Babesleei eta gurasoei eskerrak. Etxarrik azaldu zuenez, "ekonomikoki juxtu gabilta, baina denboraldia ateratzeko moduan egongo gara". Horregatik eskerrik beroenak eman zizkien Aralar taldeko babesle guztiak. Intersport Irabiak 28 urte daramatza babesle nagusi izaten, eta Migel Cavodevillari duen konpromisoa aitortu zioten. Hitz gozoenak txirrindularien gurasoendako izan ziren. "Txirrindulariek eta gurasoek kluba berruan sentitzen duzue. Zuek, entrenatzaileek, juntakoek... familia bat osatzen dugu eta horrela jarraitu behar dugu. Izugarri inplikatzeko zere eta eskerrak emateko da" gaineratu zuen presidentek.

Juango eta Villarren saltoa: 2013an Aralarrek 2 txirrindulari egin zuten salto afizionatuera: Odei Juango lakuntzarrak (Rural Kubxa) eta Pablo Villar hiriberriarrak (Telco 'm). "Pozgarria da, hori baita gure lana, neska-mutikoak gora ateratzea" adierazi zuen Etxarrik. Zorte onena hasi berri duten denboraldirako.



Eskolak (20): Jon Erdozia, Maria Beraza, Anitz Larunbe, Aitor Alberdi, Sergio Romero, Igor Arrieta, Amaluz Arratibel, Joana Irastorza, Imanol Galarza, Javier Mitxaus, Xabier Mauleon, Joseba Huarte, Urko Gorriti, Aimar Tadeo, Mikel Martinez, Asier Irujo, Julen Otxoteko, Beñat Etxezarreta, Bakarne Arregi eta Ander Rosado. Zuzendariak: Patxi Irastorza, Ana Lopez eta Javier Etxarri.

BABESLEAK



Zoila Berastegi

Herria da gorputza

astekoa

Euskal Herriaz hitz egin behar banu gauza asko esan nitzake eta bat etorriko zinatekete batzuetan, eta beste batzuetan ez. Baina uste dut, izan bateko edo beste, guztiok ados egongo ginatekeela gauza batean: Euskal Herria lur eremu bat da; espazio fisiko bat da; leku bat; muga batzuk dituen lurralde bat. Hori-

xe izango litzateke azala, begi bistakoa dena.

Baina liburu bat bailitzan, kontra-azala ere badu: Lur eremu horrek bere baitan gordetzen duena, babesten duena, sortzen duena. Gure herri honek duen edukiera hain zuzen ere, ontzi bat bailitzan. Euskal Herria ispiluan begiratuko balitz, emakume

baten gorputza islatuko litzateke. Jaiokoen horri kabida eman-go dion lekua baita emakumea. Hark elikatzen du, hark amestu, hark arnastu, hark sentitu etorriko dena; beragandik minaren minez sortuko da umea. Eta Euskal Herriatik sortuko da baita ere minaren minez gu garena.

Bai emakume nola herria, biak

diragorputz. Bizirik dauden bigorputz. Oraindik ez dena erditzeko eta izatera pasatzeko zubia. Eta agian horregatik, beren baitan bizitza bera sortzeko daukaten ahalmen eta indar horregatik daude isilaraziak, mututuak, bahituak. Herria bada, emakumea bezalaxe, baina ez bata ez besteak ezin dute haien nahien arabe-

rako erabakirik hartu. Atzerritarrek, izanaren gotorleku izatea zer den ez dakiten horiek, erabakitze eskubidea debekatu diete, digute; bai emakumeoi bai Euskal Herriarroi. Eta ozen esan behar diegu: NIRE GORPUTZEAN NIK ERABAKITZEN DUT ETA GURE LURRAZALEAN GUK ERABAKITZEN DUGU!

hara zer dien

Haur eta familia programa

Haur eta Familia programaren helburua adin txikikoen garapen pertsonal egokia sustatuko duen ingurunea ahalbidetzea da. Adin txikikoenganako tratua ona sustatzeko, bi aldetatik lan egiten da. Batetik, komunitate mailan sentsibilizazio lanak egiten dira: irrati saioak, aldizkarietan idatziak, gurasoendako tailerrak, guraso eskolak... Bestetik, banakako esku-hartzea ere egiten da laguntza eta orientazioa behar

duen familiekin, eta zerbitzua pertsonalagoa eta zuzenagoa da.

Haur eta familia programan, adin txikikoen inguruan dauden profesionalen artean sare bat sortzearen beharra ikusi da, laguntza eta orientazioa behar duten familia hauei atentzio egokiago bat emateko eta profesionalen arteko koordinazioa hobetzeko. Sarea, zuzenean eta zeharka, haur eta gazteekin lan egiten duten profesionalak osatuko dute: eskoleta-

ko, haurtzaindegietako, osasun arloko, gizarte zerbitzuetako... profesionalak osatuko dute.

Sarean lan egitea ez da bakarrik zerbitzu ezberdinen arteko koordinazioa, elkarrekin lan egitea, elkarrekin ekintzak pentsatzea, aurrera eramango diren baliabide-akerabakitzeta eta gizarteratzearen emaitzak elkartrukatzea baizik.

Gazte, haur eta familie iragiten dieten arazoak konplexuak izan daitezke eta konplexutasun honek

zerbitzu eta arlo desberdinetako profesionalen parte hartzea eskatzen du. Sarean lan egiteak lanaren eraginkortasuna hobetzen du eta aldi berean profesionalen estres maila murriztu dezake.

Sarearen helburuak: haur eta gazteentratu ona bultzatzea; laguntza beharra izan dezaketen familietara errazago eta azkarrago iristea; sarean parte hartzen dutenen artean kasua elkarrekin esku hartzea; profesional desberdinak helburu eta jarduerak komunak izatea; eta profesionalak izan ditzaketen zalantzak, kezkak... aztertu eta hausnartzeko aukera izatea.

Sarean lan egiteak abantaila asko dauzka: haur, gazte eta fami-

liei ematen zaizkien mezuak ildo beretik joango dira, sareak dituen baliabideak hobe ezagutzen dira, profesionalen arteko komunikazioa hobetzen da, prozesuak azkartzen dira, eginkizunak banatzen dira... Desabantailak ere, egon badaude: sarean lan egiteak lan gehiago suposatzen dezake, erantzukizunetan diziplina handiagoa eska dezake...

Hala ere, luzera oso eraginkorra eta positiboa ikusten dugu lan egiteko era hau, beraz, metodologia honen alde egin dugu. Irurtzango eskualdeko profesional desberdinak parte hartzera animatu dira. Beraz, sarearekin aurrera!

Gizarte Zerbitzuak

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

rrotuta doazen %95ek ez dakite momotxorren dantza? Inauteri batzordeko utzikeria ote?? Ikas-teta zaila izango balitz bezala...

Nire ustez, eta hau iritzi pertsonala da, momotxorroz mozorrotzeko bete beharreko baldintza bat dantza jakitea izan beharko luke.

Norbaitek uste du Euskal Herrian hain ospetsuak diren hainbat inauterietan gauza bera gertatzen dela? Lantzeko inauteria, Zubieta eta Iturengoa edo Zuberoako maskaradaren kasu? Inauteri haietan badakite mozorrotuta ateratzeko zein diren bete beharreko baldintzak, gure herrian betetzen ez direnak. Hemen beste tokietan gertatzen ez dena gertatzen da, eta iruditzen zait denok honen gainean hausnarketa egin beharko genukeela.

Suposatzen dut batzordekoak gure inauteria Altsasutik kanpo zabaltzera doazenean gauza hauek guztiak zaintzen dituztela, eta ez dut ulertzen zergatik herrian bertan, garrantzitsuago izanik, ez duten egiten.

Horregatik ezin naiz gure inauteriaz harro sentitu.

Martxoak 22, Euskaraz bizitzeko eskubidea dugulako

Aitor Karasatorre Muguruza Sakanako Mankomunitateko lehendakaria eta Maite Aldaz Arroyo Euskara Batzordeko lehendakaria

Azken urteetan Nafarroako Gobernuaren hizkuntz politikak mutu nahi gaitu, Nafarroan euskaraz bizitzeko dugun eskubidea gure egiten dugunok. Mutu, ikusezin, isolatu... eta hamaika dira euskarak eta euskaldunok sufritzen ditugun etengabeko erasoak, legegintzaldi honetan, krisia aitzakia, gogortuegin direnak. Ekonomikoki ito egin nahi dituzte euskarazko komunikabideak, helduen euskalduntzerako ezinbesteko diren euskaltegiak eta udaletako euskara zerbitzuak, diru-laguntzarik

gabe utziz. Irakaskuntza arautuan euskarazko hautua egitea gero eta zailagoa da guraso askori Nafarroako zenbait zonaldeetan. Ingelesaren irakaskuntza baliatu dute horretarako eta D ereduari berrari nola bertan lanean diharduten ehunka irakasleri eginiko eraso arbuigarri eta zitala... zenbatzea kostatzen da zorritzarekin.

Nafarroako Gobernuak euskararen normalizazioan duen ardurari uko egiten dio eta ez hori bakarrik, normalizaziorako bidearen hautua egin dugun udal eta mankomunitateen lana ere, behin da berriz oztopatzen du. Udalak eta Mankomunitateak gara Nafarroan Gobernuak duen ardura gure gain hartzen dugunak. Gobernuak egin beharko lukeen lana egiten dugu eta gu ere, ekonomikoki ito egin nahi gaituzte. 2001. urtetik 2012. urtera %82 jaitzi zen euska-

ra sustatzeko udal eta mankomunitatek jasotzen genuen diru laguntza partida, 860.000€ jasotzetik 2001ean 131.000€ jasotzera 2012an, eta 2013. urteko, berriz, 0€-koa, Gobernuak ez baitu partida exekutatu. Itotze ekonomiko horrek kolokan jarri du zenbait euskara zerbitzuren biziraupena eta teknikari horien lana baita ere. Euskarak normalizazioa ahalbidetuko duen hizkuntza politika eraginkor bat behar du Nafarroan, nork bere eremuan, elkarlanean aurrera eramango duguna, beharrezkoa. Hamaika eraso euskarak eta euskaldunok sufritzen ditugunak eta beste horrenbeste arrazoi, beraz, martxoaren 22an Iruñeko kaleak jendez betetzeko. Antoniutti plazatik aterako den manifestazio jendetsua izateko, mutunahi gaituzten horiekentzuz gaitzaten. Euskaraz biziz, Nafarro-

ako Gobernuaren erasoei aurre egin diezaiagun.

Altsasuko inauteriak

Iñaki Agirre

Beharbada erotzen hasia naiz, baina gero eta gutxiago gustatzen zait gure herriko inauteria.

Argidago inauteri batzordekoak ez direla ohartzen. Inauterietan gero eta gauza gehiago sartzeak ez du gure inauteria gehiago aberastuko!!!! Guztiz kontrakoa. Iruditzen zait lehen zeukan xarma galtzen ari dela, nahaste-borraste bat bihurtuz.

Honekin lotuta gehien kezkatzen nauena eta aldi berean erabat lotsarazten nauena zera da, momotxorren dantzarekin azken urte hauetan gertatzen ari dena.

Zergatik momotxorroz mozo-

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Erkuden Ruiz Barroso eta

Maialen Huarte Arano
ZUZENTZAILA: Garazi Garzia Mauleon
ARGITARATZAILA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikako Salburuordetza

SAKANA



Jendea Arbizuko plazan.

Euskararendako arnaguneak zabaltzeko

Asmo horrekin tailerra antolatuta dute Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) eta Euskal Herrian Euskarazek (EHE). Euskara nagusi den espazioa da arnagunea, eguneroko bizitzan euskara naturaltasunez erabiltzen den gunea. Familia, ikastetxea, lantokia, herria... euskararen arnagunea edozein izan daiteke.

UEMAk eta EHEk antolatutako tailerren arnaguneen garrantzia, hedatzeko oztopoez eta horiei aurre egiteko urratsez hausnartuko dute. Bihar 17 pertsona bilduko dira Etxarri Aranazko kultur etxean, 10:00etatik 12:00etara eta heldu den ostiralean 18:00etatik 20:00etara.

>> Arbizu / Etxarri Aranatz

UEMAk euskararen aldeko 22ko manifestaziora deitu du

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) kideek herenegun salatu zuten, "Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikak euskara eremu publikotik erabat desagerrarazi nahi du". Eta gobernuaren egitasmo horren barruan kokatzen dute udalen eta mankomunitateen Euskara Zerbitzuak 2013an diru-laguntzarik gabe uztea eta aurten antzeko bidea segitzea.

Azpimarratu zuten, "udalak dira, orokorrean Euskal Herrian hizkuntza-politika ausartenak eta aurrerakoenak lantzen ari garenak, eta horien artean nabarmen-tzekoa da UEMAko udalerriek egiten dugun lana. Aitzindariak gara eta euskaraz bizitzeko apustua egina dugu". Hizkuntza politika planifikatu bat eta harendako bitartekoak ezinbestekotzat jo zituzten. "Bide horretan, sekulako ahalegina egiten ari gara udalerrri euskaldunak, Nafarroako Gobernuaren inolako babesik eta laguntzarik gabe".

Deialdia



Egoera jasangaitza dela nabarmendu zuten UEMAtik: "Nafarroako aniztasunari bizkar eman eta bertako hizkuntza sustatzeko politikak bazter utzi dituen gobernu honi bestelako hizkuntza politika bat nahi dugula, eta beharrezkoa dela, aldarrikatzeko Nafarroako UEMAko udalerriek ere bat egin nahi dugu datorren martxoaren 22an Iruñean egingo den manifestazioarekin". Herritarrei nafar guztion hizkuntza eskubideak kalean aldarrikatzeko eskatu diete.

Nafarroako Gobernuak egiten dituen hizkuntza-eskubideen "urraketa sistematikoa" nabarmendu zuten UEMAko ordezkariak. Bake epaitegietan, liburutegietan edo osasun arloan zerbitzua

euskaraz bermatzeko UEMAtik egiten ari diren lana horren adierazle gisa jarri zuten. Euskararen legeak herritarrek administrazio publikoekiko euskara eta gaztelania erabiltzeko eta haietako bat

aukeratzeko eskubidea aitortzen duela gogorarazi zuten. Beraz, "Nafarroako Gobernuak ez ditu legeak herritarrei aitortzen dizkien eskubideak errespetatzen, ez eta euskararen legea bera ere".

>> Irurtzun / Aizkobe

Plazaola bide berdeak udazkenean lotuko ditu Andoain eta Irurtzongo muga

Maiatzean hasiko dira falta den Mugiroko zatiko lanak, 274.435 euroko aurrekontua dutenak

Plazaolako bide berdeak etapa berria egingen du aurten Mugiroko lanekin. 4,14 km-ko lan horiek despidituta Andoain eta Irurtzongo muga artean bizikletan edo oinez ibiltzeko aukera eskainiko du bide berdeak. Plazaola turismo partzuegoak kudeatzen du bide berdeko egitasmoa eta bere buru Maitena Ezkutarik esan digunez, inguru horretan dagoen hezetasunagatik lanak maiatzera atzeratu dituzte. "Udan

aurreratuko dituzte lanak eta udazkenearako despidituta izanen dira".

Ibarrera nola sartu

Biaizpetik nola pasa aztertzen ari dira gaur egun Plazaola turismo partzuegoan. Bi aukera aztertzen ari direla azaldu digu Ezkutarik. Lehena Larraun ibai ertzean dagoen arrantzaleen bidearekin lotzea litzateke. "Hala, Arakilgo ibilbideen sarearekin lotuko litzateke eta Irurtzunerajoateko aukera legoke. Oinezkoendako aukera ona da, baina ez txirringulariendako".



Arakilgo bide sarearekin bat egiteko aukera aztergai dute.

Beste aukera Plazaolaren ibilbidea segitzea litzateke. Baina oso garestia litzateke hura gauzatzea tunelak argizatzea eta semaforak jartzea eskatuko lukeelako, bes-

teak beste. Teknikariak aukerak aztertzen segitzen dute. Bestalde, behin Irurtzunerara iritsita, Aizkobe tunela hondoratuta dagoenez bide bat erabiliko litzateke.



Zuhaitzak Aralarren.

Lau baso ordenazio planetarako laguntzak

Nafarroako Gobernuak herenegun egindako bilkuran Arakil, Irurtzun, Irañeta eta Urbasako basoen ordenazio planen erredakziorako diru saila onartu du. Aipatu planak 2007-2013 Nafarroako Landa Garapen Programakoak dira. Haien bidez basoen erabilera eta aprobetxamendu arautuak lortu nahi dira, beti ere, natura baliabideen kontserbazioarekin bat datorrena. Arakil, Irurtzun eta Irañetako planaren erredakziora Nafarroako Gobernuak 58.820 euro bideratu ditu. Urbasakorako, berriz, 102.921 euro. Guztira ibarreko bi planetarako 161.741 euro dira.

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Asteleheneetik ostiralera
Eguneko menua 8,25€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

kattuka
haur eskola

Aurre matrikula epea:
Martxoaren 3tik 18ra

Matrikula epea:
Maiatzaren 23tik 30era

Uhalde kalea z/g • 31839 Arbizu • 948 567 009 • kattukahureskola@gmail.com

barrutik kanpora

Ingurumenaren garrantzia!

Aurreko astean Madril en egoteko aukera izan genuen. Bertan, ekintzaileen ekosistema ezberdinak ikusi genituen.

Ikusi besterik ez duzu, Madril bezalako hiriburu batean ekintzaileen egunerokotasuna nolako den. Ekintzaile gazte zein ez hain gazteek, beraien bulegoan lan egin beharrean, nahiago izaten dute Co-working space deritzanetan lan egitea.

Zer da Co-working space bat? Ekintzaileen elkarlanerako espazioak dira. Normalean espazio irekiak izaten dira eta erabilera bat baino gehiagoko materialak erabiltzen dituzte: mahaiak, eserlekuak, armairuak egiteko...

Eta zergatik aukeratu dituzte ekintzaileek horrelako espazioak lan egiteko? Ekintzaileen arteko sinergiak eta konexioak lantzeko aukerak dituztelako. Oso ximplea, ezta? Ideia bat duzunean eta garatzen hasten zarenean, zure inguruan dauden pertsonen iritziak behar izan ohi dituzu.

Bestalde, pertsonak garen heinean eta ez makinak, proiektuak garatzen gabiltzanean kanpoko pertsonen laguntza beharrezkoa da, gutako bakoitzak ez baita uzkara beharrezkoak diren ezagutza eta esperientzia guztiak. Horregatik, proiektuaren beharrak asetzeko beste pertsona batzuk behar dira eta horregatik ezinbestekoa izaten da ingurumen egoki batean lan egitea. Elkarlanerako espazio hauek pertsonen arteko sinergia eta konexioak bultzatzeko sortu dira.

Sakantzen Sareak, Sakanako beste eragile sozio-ekonomikoekin batera eta Sakanako Plan Estrategikoko akzio planarekin bat eginez, aurtengo urtera begira, Co-working espazio bat sortzeko aukerak aztertuko ditu. Bertako ekintzaileen arteko sinergiak eta konexioak landu ahal izateko eta sortu diren enpresa edota sortzekoak diren proiektuei bultzada bat emateko.

Pausu bat gehiago eta geroz eta gertuago!

Sakantzen Sarea

>> Altsasu

Abortatzeko eskubidea aldarrikatu dute

Emakumeen Nazioarteko Egunaren bezperan abortuaren aldeko kontzentrazioa egin zen

Gure gorputza, gure erabakia. Abortua libre eta doan. Lelo horrekin elkartu ziren ostiralean 50 bat pertsona Altsasuko

udaletxe parean. Espainiako Gobernuak proposatu duen legearen kontra protesta egin eta abortatzeko eskubidea defendatu zuten. Altsasuko Feministak eta Bilgune Feministak deitu zuten elkarretaratzea.



Abortatzeko eskubidea aldarrikatu zuten ostiralean Altsasan.

>>

Apirileko oporretan ere Dibertigarria, Bateragarria

Asteleheneetik martxoaren 24ra arte eman daiteke izena 012 telefonora deituz edo www.alsasua.net atarian

Aste Santuan haurrek ikastetxean oporrak izanen dituzte eta hainbat familietan arazoa sortzen da. Izan ere, lana eta familia arduak seme-alaben zaintza zailtzen die. Hori dela eta, Altsasuko Udalak txikiak eta behar bereziak dituzten gazteak oporrak lagunekin pasatzeko Dibertigarria, Bateragarria programa martxan jarriko du. Jolas, jarduera eta tailerrez osatutako eskaintza egin du apribilaren 22, 23, 24 eta 25erako.

Esperientzia duten begiraleekin ariko dira 3 eta 12 urte bitarteko haurrak alde batetik eta, bestetik, behar bereziak dituzten 12 urte-



Haurrak jolasten. ARTXIBOA

tik gorako gazteak. Lehenak ludotekan ariko dira eta bi ordutegi dituzte aukeran: 8:30etik 13:30era edo 11:00etatik 13:30era. Bigarrenak,

berriz, Intxostiapunta gazte gunean elkartuko dira, 17:00etatik 20:00etara. Izena ematerakoan udalak hainbat hobari zehaztu ditu.

Erantzuna

Pasa den urtean 3 eta 12 urte bitarteko haurren eskaintza hirutan egin zuen Altsasuko Udalak. Apirilean 38 haur aritu ziren, garagarrian 39 eta eguberrian 36; guztira 113. 40 plaza daude, baina behar bereziaren bat duen haurren batek izena ematen badu kopurua txikiago egingen da.

Behar bereziak dituzten gazteendako hiru eskaintza egin zituen pasa den urtean udalak: apribilaren 7, garilean 8 eta eguberrian 9 aritu ziren; guztira 24. Txanda bakoitzean 10 plaza eskaintzen ditu Altsasuko Udalak.

SAKANA

Presoak Euskal Herriratzea eskatzen hasi dira

Arabako Zaballa espetxera edo etxetik gertuenera aldatzeko eskariak aurkezten hasi dira, txandaka

Euskal Preso Politikoen Kolektiboko (EPPK) kideak astelehenean hasi ziren Euskal Herriratze-ko eskaera pertsonalak aurkezten. Faseka egingen dute eta garagarria akaberarako guztiek eskaera eginga izanen dute. Espainiako espetxeetan dauden presoek Zaballa espetxera lekualdatzeko eskatuko dute. Frantzia daudenak, berriz, etxetik gertuen dagoen presondegira aldatzea eskatuko dute.

+www.guaixe.net

Sakandarrak

20 urte baino gehiago preso daudenek euren eskaerak apirilaren hasieran egingen dituzte. Horien artean Unai Parot Navarro, Puerto de Santa Maria, Huelvako Puerto III espetxean dagoena, 1.050 km-ra. 1990eko apirilaren 2an atxilotu zuten. 23 urte eta 11 hilabete darama espetxean preso. Laugarren txandan euren espetxeko zuzendariari zuzenduko zaizkion preso sakandarrak hiru dira. Asier Carrera Arenzana, Dueñas-ko espetxean dago, Palentzia, 300 km-ra. 2000ko azaroaren 9an

atxilotu zuten, beraz, 13 urte eta 4 hilabete darama preso. Luis Mariñelarena Garziandia Curtisen, A Coruña-ko Teixeiron dago, 650 km-ra. 2001eko lastailaren 17an atxilotu zuten. 12 urte eta 5 hilabete dira preso dagoela. Juan Ramon Karasatorre Aldaz Castellongo Albocasserko Castello II kartzelan dago, 590 km-ra. 2001eko abenduaren 12an atxilotua, 12 urte eta 3 hilabete preso dagoela.

Bosgarren txandan beste hiru sakandar izan dira Euskal Herriratze-ko eskatuko dutenak. Juan Kruz Maiza Artola, Ile de France

eskualdeko Saint Maur espetxean preso dago, 680 km-ra. 2007ko garilaren 26an atxilotu zuten. 6 urte eta 7 hilabete darama preso. Oihan Barandalla Goñi, Nanterren, Parisen dute, 930 km-ra. 2007ko irailaren 1ean atxilotu zuten; 6 urte eta erdi darama preso. Beraz, maiatzaren erdialdetik aurrera egingen dute biek etxetik gertuen dagoen espetxera gertutzeko eskaera. Garai berean egingen du eskaera A Laman, Pontevedran, 730 km-ra preso dagoen Hodei Ijurko Irozek. 2008ko martxoaren 9an atxilotu zuten Ijurko eta sei urte egin berri ditu espetxean.

Ezkaba S.L.
Suteen prebentzio sistemak

INSTALAZIO ETA MANTENTZE-LANAK

- Su-itxalgailuak
- Biesak
- Sute-zentralak...

ESKAITZA BEREZIAK

- Auzokideen komunitateak
- Ostalaritza
- Abeltzariak

Iruñea
948 382 271 - Mabrak: 671 619 018
www.prevencionezkaba.com

sorgiñak
taberna

LAKUNTZA

948 576 357

TxikiTxo
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08
Ferialeku 2 · ALTSASU

kaxeta
liburudenda / paperdenda

Zure bertako opari denda

Fax Zerbitzua
Koloretako fotokopiak

Tel.: 948 460 477
Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

PPSOE,
ETB
digitala

Nafarroan orain!

Berria erosi taldea

» Irurtzun

ITB berrituta heldu da**Ostiralean 40 pertsona bildu ziren denboraldi berriaren mustutzean**

Itxuraldatua etorri da Irurtzun Telebistaren denboraldi berria. Platoa eta saioaren irudia aldatzearekin batera, eduki berriak ere gehitu dituzte. Hala, azken saioan inauterien berri emateaz aparte, bi atal berri mustu dituzte. Bate-tik, atzerrian diren irurtzundarrek euren bideoak bidaltzeko atala eta, bestetik, bekariora bilatzeko tele-kastinga. Batera eta besterajendeak bere bideoak bidali ditzake (itb.irurtzuntelebista@gmail.com). Gainera, agenda atal bat sortu dute eta Facebook bidez harremanetan jartzeko bidea eman ere. Berrituta, beraz, ITB.



Sasoi berriarekin, irudi berritua.

» Uharte Arakil

Pausoka haur eskolaren kudeaketa Dindaia fundazioarendako

Ikasturte berriarekin batera Dindaia fundazioaren esku geldituko da Uharte Arakilgo Pausoka udal haur eskolaren kudeaketa. 0 eta 3 urte bitarteko haurrak hartzeko gela bakar bat dago. 11 plaza ditu eta gaur egun guztiak beteak daude. Euskara hutsean eskaintzen da zerbitzua Pausokan.

Uharteko haur eskola 2005/2006 ikasturtean sortu zuen udalak. Pasa den lastailean Hezkuntza Departamentuarekin hitzarmena sinatu zuen udalak eta Pausokak

izaera publikoa eskuratu zuen. Horrek diru-laguntzetarako atea zabaltu dio. Hala, 12/13 ikasturteari dagozkion 21.000 euroko laguntza jaso dute Uhartan. Udalean hitzarmenarekin pozik daude, orain arte gurasoen eta udalaren bizkar baitzegoen gastua.

Ubeldea

Pasa den asteko euriteek ibaiak berriro gainezka egitea eta Irañetarako errepidea ixtea ekarri zuten. Pasa den urtean uholdeak



Umeak haur eskolan.

eragozteko lanak egin zituen Uharteko Udalak uharka eta Zerradoko bidearen artean. Teknikariak pozik daude ura bere bidera azkar-rago bueltatzen delako. Baina lan horiek zubi ondoan egin beharrekoekin osatu behar dira. Biga-

rren fase horretarako diru-laguntza lortzeko Nafarroako Gobernuarekin hizketan daude udal ordezkariak. Aurten lan horiek ez dira egingen eta heldu den urtean egiteko laguntza lortzen ahalegingduko dira.

» Bakaiku

Gaztainondoak aurrera ateratzeko lan taldea sortuko da**Martxoaren 21ean, ostiralean, 19:00etan Bakaikuko auzora joateko deia egin da**

Gaztaina biltze egunean hainbat galdera sortu zitzaizen parte hartu zuten bakaikuarrei: zergatik gaixotu ziren gaztainondoak? Sendatzerik dute? Berriak landatu edo zaharrak kimatu? Nola eta non egin? Erantzuna bilatu nahian Kultura Batzordeak otsaileko lehen ostiralean mahai-ingurua egin zuen udaletxean eta Berako baso ingeniari batek parte hartu zuen. 20 herritar elkartu ziren, gaiak pizten duen interesaren adierazgarri.

Basozainak, profesionalak eta herritarrak elkarlanean aritzea-



Gaztainondoez hitz egitera bildu zirenekoa. UTZITAKOIA

ren beharra nabarmendu zuen. Gaztainondoen osasuna berreskuratzeko aukera bat baino gehiago erabiltzea proposatu zuen adituak.

Hainbat urte iraunen lukeen plana egitea proposatu zuen eta gaz-tigatu zuen epe motzean emaitza ikusi nahi duenak 5 eta 10 urte bitar-

tean itxaron beharko lukeela.

Mahai-inguruan ideia, zalantza, proposamen ugari atera ziren eta lan talde bat sortzea erabakiz. Martxoaren 21erako deitu dute bilera, gaztainondoez arduratuko den lan taldea sortzeko. Interesatuta dauden bakaikuar guztiak gonbidatu ditu batzordeak.

Garrantzia

Garai batean aparteko garrantzia izan zuen gaztainak bakaikuarren bizitzan. Familia bakoitzak hainbat gaztainondo zituen. Egun bat zehazten zuten Bakaikun gaztainak hartzeko. Gaztaina mozte eguna ospatu izan zen pasa den mendeko 60ko hamarkadara arte.

UDABERRIARI ongi etorria**Jakoba Errekondo****Paisajista eta Euskadi Irratiko Landaberri saioko esataria**

Baratza eta lorategiko landareen inguruko zure zalantza guztiak argituko ditu

MARTXOAK 21
URDIAINgo Negutegian

Egitaraua:

16:30ean Negutegi eta promozioen aurkezpena**17:00etan Jakoba Errekondo hitzaldia/galdeketa saioa****19:00etan Luntx-a**

* Deskontu baleak banatuko dira

www.goikolorezaintza.com**Goiko**
LOREZAINZA

SAKANA

Madrilgo auzitegian izan da epaiketa.

Epaiaren zain 35/02 sumarioko auzipetuak

Epai hiru hilabetetan etorri daiteke

Duela dozena bat urte abiatutako sumarioko epaiketa lastailaren 17an hasi zen eta bost hilabeteren ondoren herenegun epaiaren zain gelditu zen. Espainiako Auzitegi Nazionalen 35/02ko sumarioan herriko tabernen bitartez ETA finantzatzea leporatuta 32 euskal herritar epaitu dituzte Madril. Haien artean zeuden Juan Kruz Aldasoro eta Jaione Intxaurraga.

Fiskaltzak hasierako eskaera aldatu eta etxarriarrendako 10 urteko espetxe zigorra eskatzetik 4 urte eta erdi eskatzera pasa da. Urdiandarrarendako zigor eskaera, berriz, 8 urtetik 2 urte eta 2

hilabetera pasa du. AVTk eta Dignidad y Justicia akusazioek eskaerei eutsi diete eta abokatuak auzipetu guztien absoluzioa eskatu du akusazioak probatu ez direla argudiatuta.

Herria Eginez

Gainera, 110 herriko taberna ere epaituko dituzte "erantzule zibil" izatea egotzita eta haiek jabetzak hartzeko nahia argi gelditu da epaiketan. Baltasar Garzonen aginduz itxi zuten 2002ko agorriaren 26an Altsasuko Herria Eginez elkartea. Haren buru zen Juan Manuel Alzelai altsasuarra lehen saioan izan zen Madril.

Olatzagutia

Errausketa hondakin metodo gisa desagertzea eskatu dute

Porlandegietan erraustearen kontrako estatuko plataformen koordinakundearen bilera izan zen pasa den asteburuan Madrilgo Morata de Tajuñan. Martxoaren 7 eta 9 artean estatu guztiko hainbat plataformetako ordezkariak euren errealitatearen berri eman eta iritzia trukatuz zituzten. Haien artean izan zen 3 Mugak Batera plataforma, Olatzagutiko porlandegian erraustearen kontra ari dena.

Plataformek hirupuntu adostu zituzten. Alde batetik, Diputatuen Kongresuan ordezkariak dauden alderdiei eskatzea murrizketan, berbera bileran eta birziklatzean oinarritutako hondakinen kudeaketa politikak defenda ditzatela. Horrekin batera, errausketaren kontra egin dezatela, bai errauskailuetan baita, "arrazoi gehiagoz, porlandegietan". Aldi berean, porlandegiei dohainik ematen zaizkien isurpen eskubideen gaineko kontrol eraginkorra eskatu dute plataformek. Aldi berean, diru-laguntza bidez errausketa ez sustatzeko, "sektorearendako diru-laguntza baita soberan dituzten isurpen eskubideen eskandaluzko salmenta".

Morata de Tajuñan elkartutakoek porlandegietan hondakinak erretzeko baimenak ematerakoan eta haien kontrolean errepikatzen diren lege hauste nabarmenengatik arduradun politikoa salatuz zituzten. "la kriminalki, beti partikularren interesen kontra aritzen dira, interes orokorra, pertsonen eta ingurumenaren osasunaren kaltetan".

HITZALDIAK

Asteburuko topaketan ere hitzaldiak izan ziren. Pilar Muñoz doktoreak hondakinen erretzeko populazioarengan duen arriskuez aritu zen. Adierazi zuenez, "ingurumena ez da pribilegio bat, eskubide bat baizik. Toxikoak gure gorputzean ez sartzeko modurik onena prebentzioa da". Carlos Arribas fisikoak, Ekologistak Martxan eta Europako Hondakinen Batzordeko kideak, porlandegietan erretzeko araudi berria aurkeztu zuen. Bere iritziz porlandegietako isurien kontrolarekin "bigunegia" da. CO2 isurien doako asignazioekin enpresek egiten duten negozioa salatu zuen, baita enpresa lobbyen presioa.

Azkenik, Gaia erakundeko Mariel Vilellak zero zabor lortzeko administrazioek duten ardura nabarmendu zuen. Kontsumo arduratsua eta hondakinen gaikako bilketa egiteko kontzientziazte kanpainen premia nabarmendu zuen.



Parte hartu zutenetako batzuk.

SAKANA

Jende ilarak sortuko dira atzera ere.

Xabierri, bigarrenz

Martxoko bigarren asteburuarekin batera, bihar, eginen dute makina bat erromesek Xabierko bidea. Pasa den igandean askok eta askok egin zuten moduan berriro ere jende ugari eginen du gaztelurako bidea saildu gurtzeko. *Kristo konektatu, ibiltzeko bide bat* leloa dute aurtengo Xabierraldiek. Zangozatik gurutze-bidea bihar 15:00etan abiatuko da eta 17:00etan izanen da meza. Grazia-aren Bederatziurrenaren barruan, bestalde, Sakana hartzen duen Mendialde bikarriotzako hainbat kristau astearrean Xabierren egin ziren.



Norberak osasuna kudeatzeko

Hori ikasteko oinarriak eman nahian Sakanako Asanblada Libertarioak (SAL) osasunaren autogestiorako tailerra antolatu du igandera. Leire Saituak gidatuta eginen dira tailerrak Altsasuko kaputxinoen komentuan. 11:00etatik 14:00etara aurkezpena eta praktika izanen dira. Bazkarirako etenaren ondoren, 15:30etik 17:30era tailerrak segida izanen du. Arnasketak, erresonantzi eraldaketak, zabor emozionalak, auto-ezagutza eta beste aztertuko dituzte, "gure osasunaren jabe izateko giltza barneratuz".

Osasunaren autogestioaren inguruko aurreneko saioa 2012ko azaroaren 25ean egin zuen SALEk. Orduko hartan kritika egin zioten egungo sistemari, osasuna kudeatzen ez duelako eritasunaren negozioa baizik. Horretan aparte garrantzia eman zioten "kartel kimiko-farmazeutikoari" eta osasunaren burujabetasuna landuz gastuak heren batera jaitsi daitezkeela adierazi zuten. Bestelako osasun ereduak garatzearen alde agertu ziren eta gorputzaren eta gogoaren zatiketarik dituen ondorioez aritu ziren. Guztia buelta eman eta osasun burujabe baterako bost oinarri ere aipatu zituzten: arnasketa, elikadura, ariketa, atsedena eta pentsaera baimakorra.

Izena ematea

babarrunbeltzak@gmail.com - postara idatziz edo 646 720 133 telefonora hots eginez egin daiteke. Gaur da azken eguna.

Arbizu / Altsasu

Bake epaile bila

Arbizuko eta Altsasuko udalek bake epaile titularraren kargua betetzeko deialdia egin dute. Kargua betetzeko eskaerak betetzen dituztenak euren eskabideak dagokion udal txeko erregistroan aurkeztu ditzakete, norberaren espedientearekin batera (titulu akademikoa, esperientzia eta merezimenduak).

SAKANA

NATOren kontra

Askapenak erakunde militarra salatzen du kanpaina eginen du asteburuan, duela 28 urteko erreferendumeko ezetzkoa gogoan

Hego Euskal Herriko hautesleen %60k NATO n sartzeari ezetz esan zioten 1986ko martxoaren 12an. Askapenatik azaldu dutenez, egun hartan "antolakuntza militarren izaera inperialista eta guda-zalearen kontrako jarrerarekin batera Euskal Herriaren izaera subiranoa argi utzi zen".

Erakunde internazionalistak gogora ekarri du NATO 1949an sortu zela, gerra hotzaren garaian, hainbat estatu "komunismo sobietarraren balizko mehatxuaren aurka euren burgesia eta oligarkia nazionalen interesen defentsan batu" zirenean. Askapenatik salatu dutenez, "defentsarako batasun bezala" aurkezten zenak, munduan barna bere "hegemonia inperialista" inposatzen saiatu da. Horretarako, NATOk "ordena bakarraren legezketasuna inposatzen saiatu da, herri subiranotasunak transnazionalen eta oligarkien agindupean jarri dituen ordena". Erakundeak munduko gastu militarren %70 apilatzeko duela nabarmendu dute internazionalistek.

Askapenak "gure artean guda inperialistaren merkaturak bultzatzen duten enpresak guretik kanporatzeko" nahia azaldu du eta gure subiranotasunaren bahiketaren adibideezin argiago den Bardeetako tirozelaia suntsitzearan alde agertu da.

Egitaraua

OTANI buruz. Martxoaren 14an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

La OTAN, el brazo armado del imperio. Martxoaren 15ean, larunbatean, 19:00etan Etxarri Aranazko gaztetxean.

El ejército secreto de la OTAN. Martxoaren 16an, domekan, 19:00etan Iturmendiko auzogelatan.



Kartel iragarlea.

Egin zaitez bazkide
www.guaixe.net

SAKANA

Duintasunaren Martxa asteazkenean iritsiko da

Janari bilketa eginen dute eta murrizketak salatuko dituzte

Sindicato Andaluz de Trabajadores (SAT) deialdiarekin bat egin ez Gune plataforman biltzen den euskal gehiengo sindikala eta makina bat erakunde Duintasunaren Martxa abiarazi zuten. Hilaren 11tik Euskal Herrian barnako makina bat eskualdeetatik pasako da martxa hori. Heldu den asteazkenean Sakanara iritsiko da eta martxa ostegunean, hilaren 20an, bukatuko da Iruñean eginen den manifestazioarekin (autobus geltokitik, 19:00etan). SATek hilaren 22an Madrilan manifestatzera deitu du eta deialdi horrekin bat egin du ere Gune plataformak.

Duintasunaren Martxa Espainiako eta Nafarroako gobernuak indarrean jartzen ari diren

politika antisozialek herritar gehienak pobretzea ekartzen dutela eta gutxiengo bat aberas-tea eragiten dutela salatu nahi du. Gunetik gogora ekarri nahi izan dute Sakanak dituen 1.800 langabetuak eta suntsitu den enpleguaren %32a, baita soldata, pentsio, osasungintza edota hezkuntza izan diren murrizketak ere. “Gero eta gehiago gara lanpostu bat izan arren bizi baldintza duinak mantentzeko zailtasuna ditugunak”.

Ibarrean

Heldu den asteazkenean Duintasun Martxa Sakanara iristen “egungo eredu aldatzeko bitarteko gisa elkartasuna eta borroka” aldarrikatuko dituzte Gune plataformakoek. Aldi berean, lanaren banaketa justuago bat izateko bes-

Jaki bilketak martxoaren 19an

10:30etik 11:00etara Altsasuko Iortia plazan.
12:00etatik 12:30era Irurtzongo Udal Plazan.
13:00etan Etxarri Aranazko plazan.
Ondoren Sakanako mobilizazioa.

telako eredu bat beharrezkoa dela aldarrikatuko dute. “Guk geure etorkizuna eraikitzeko eskubidea aldarrikatuko dugu”.

Sektore publikoak oinarriko eskubideak bermatu behar dituela aldarrikatuko dute. Zerbitzu publikoen, kalitatezko enpleguaren, etxebizitza eskubidearen alde azaldu dira Guneko kideak. Sakanatik pasatzerakoan martxako kideek salatuko dute gero eta jende gehiago dagoela etxean jatekorik ez duena eta elkartasun beha-



Gune plataforman euskal gehiengo sindikala eta hainbat erakunde daude.

rra dutenak. Horregatik, heldu den asteazkenean Irurtzunen, Etxarri eta Altsasun jaki bilketak eginen dituzte, “governuen poli-

tikengatik kaltetuenak izan direnen artean banatzeko. Jasotakoa Nafarroako Elikagaien Bankuari emanen diote.

Ihoteak



HIRIBERRI



ALTSASU



IHABAR



IHABAR



IHABAR



ALTSASU



ALTSASU



ALTSASU

PORTUKO okindegia
Ogiaren artisaueak

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

Arbizu
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com

948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)

Naiara Goikoetxea Arteta

III. urtea

Gure bizitzan zaude,
gure pentsamenduan,
gure bihotzean.
Baina zer ez genuke egingo
gau hura ez pasatzeko.

Maite zaitugu!

Zure Iturmendiko familia



**Hainbat
aukera**

Galdetu

948 564 275

Oroigarriak



**Guaixe
KOMUNIKAZIOA**

948 564 275

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarrian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorian@guaixe.net

Lana / Negozioak

LAN ESKAINTZA

BIOENER enpresak komertziala behar du. Sakanan biomasa beragailuen instalakuntzak sal-
tzeko (egurra, pellet, ezpalak). Interesatuek deitu
608 78 46 94 edo jaimibir@gmail.com helbidera
idatzi.

Ibilgailuak

KOTXEAK

SALDU

Vespino motorra paperekin salgai. Etxarrin.
Interesatuek hots egin dezatela 629 40 32 18
telefonora.

Opatutakoak/galdutakoak

GALDUTAKOAK

**Oinez ibiltzeko Altus makila gorria galdu
zen.** Arbizuko Sandindei dermioan otsailaren
23an. Opatu duenak, mesedez, Guaixera hots
egin dezala 948 56 42 75.

Ikastaroak

AES. "Oinarriko enpresa-ingelera", Arbizun, 70
ordu, apirila-ekaina; "Enpresa ingelera II",
Arbizun, 70 ordu, iraila-azaroa; "Ingelera elka-
rriketa praktikak", Arbizun, 40 ordu, azaroa-
abendua; "Ekoizpena eta biltegien kudeaketa:
denbora eta kostuen murrizketa", Arbizun, 80
ordu, apirila-ekaina; "Planoen interpretazioa eta
ordenagailuz lagundutako diseinua", Altsasu, 60
ordu, urria-abendua; "Adimen emozionala",
Arbizun, 30 ordu, iraila-urria; "ETEei aplikatuta-
ko trebatuen pertsonalak", Arbizun, 35
ordu,ekaina; "EXCEL 2010: informazioaren kal-
kulo eta kudeaketarako baliabideak", Altsasun,
40 ordu, apirila; Informazio gehiago: 948 46 83
07 eta formacion@aesakana.com

Cederna. Nire zaletasuna nire lanpostu bihurtu,
Altsasun, maiatzak 8-15-22 eta 29, ekainak 5;
Zuzenean saltzeko estrategiak, Arbizun,
urria/azaroa zehaztu gabe. Argibide gehiago:
Oskia Lazkoz sakana.admon@cederna.es - 948
56 70 10.

**IFESek hainbat ikastaro antolatatu ditu
Iruñean.** Informazio gehiago www.ifes.es, 948-
15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak:
izen ematea <http://www.ifes.es>

Forem Navarra - CCOO ikastaroak.

Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehi-
ago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

Lehiaketak

Sahari kantari 2014. Saharar herriaren egoeraz
sentsibilizatzea helburu duen lehiaketa.
Taldea bakarlariek euren kantak martxoaren
28ra arte auzeratu ditzakete. Informazioa
www.saharaiantari-2014.saharaelkartea.org

ETBko lehiaketarako lehiakideak. Hizkamilka
lehiaketarako lehiakideak behar dira. Kultura oro-
korreko galderari erantzun beharko diete.
Interesatuek euren datuak eta kontakturako
modua hizkamizka@eitb.com e-postara bidali
beharko dute.

Oharrik

Bertso-udalekuak. 5 urtetik 18 urtera
www.bertsozale.com web gunearen bidez eman
daiteke izena martxoaren 11tik 27ra.

Odol emaileak. Martxo: 20an Olaztin, arratsal-
dez.

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko.
Diru bilketa hasi dute, Aholza behar dugu lelope-
an. Ekarpenak kontu korrontean (3035 0229 39
2290033933 Laboral kutxa) edo
[http://goteo.org/project/aholza-behar-
dugu?lang=eu](http://goteo.org/project/aholza-behar-dugu?lang=eu) bidez egin.

Tartalariendako laguntza. Laguntza ekonomi-
koa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591
korrontean sartu daiteke.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon
laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta
finantzatzeko: [http://goteo.org/project/zu-gabe-
ezin](http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin)

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru
ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke:
Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878,
Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta
Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

**Haurren eritmoak errespetatzen dituen
eskola librea nahi baduzu.** Deitu 661- 59 04

20 telefonora.

**Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpai-
na.** Informazio gehiago:
www.euskonews.com/laguntza
euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

Informatika - trukea. Informazio gehiago larre-
zabaldek@inigoaritz.com

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural
kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak
3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan.
Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38
50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonoe-
tara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako.
Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi
duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago:
amigososefinaarreguilagunak.blogspot.com eta
amigososefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure belexegua txartela. 50€ko
kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak
betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo
bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

**Nafarroako Ondarearen Defentsarako
Plataforma laguntzeko.** Eliza katolikoak,
Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez,
Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publi-
koen inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen.
Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian
dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman.
Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea
zabaldu dute Nafarroako Kutxa: 2054/0142 68
9152623199.

**Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta
denda.** Sakanan produktu ekologikoa zuzenean
eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari
eta abeltzainekin harremanetan jarri edo horni-
tzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko
produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri.
Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota
bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako den-
dan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoen-
a: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta,
arroz, pasta, galletak, txokolata, haragia, behi
esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, gara-
gardo, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656

711 130 (Gorka).

**Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko
boluntarioen kanpaina.** Haietan premiazkoak
direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako
arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa;
esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko maki-
nak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora era-
man: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora,
irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkene-
tan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948
460 875 telefonoa.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua
Sakanan. Sakanako Mankomunitateko
Immigrazio Zerbitzuak martxoan jarria, etorkinekin
harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta
baita etorkin beraien ere, bai ahozko nola idatzizko
itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena:
itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hiz-
kuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen
gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua.
9:00etatik 10:30era osasun zentroetan,
11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00eta-
tik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan
Etxarri Aranatan, asteartean Iruztunen eta
ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu
648 07 07 10 edo [immigrazio@sakana-
mank.com](mailto:immigrazio@sakana-
mank.com) posta elektronikoa.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. ileko
lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara
Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda
kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gaz-
teria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaituz Mintzakide! Euskara ongi dakien
bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru per-
tsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez.
Taldea gustuko duena egitea aukeratzeko du:
kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz.
Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, saka-
na_mintza@aek.org e-posta edo
sakanamintza.blogspot.com ataria.

**Euskal Memoria Fundazioak babesleak
behar ditu.** Euskal Herriaren memoria berresku-
ratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak
6000 babesle behar ditu. Informazio guztia:
www.euskalmemoria.com web gunean.

Iparaldeko Ikastolak laguntzeko. Bi kontu
zenbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko:
3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa)

JAIOTZAK

• **Alaitz Razkin Santamaria,**
martxoaren 4an Altsasun.

HERIOTZAK

• **Luis Javier Carrera Arbizu,**
martxoaren 8an Arbizun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan
jasotzen da

eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

Garraio laguntzarako diru bilketa. Sortzen
ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta
ikasketak D ereduaren egiteko beste eskualdeetara
joan behar duten ikasleek garraioa laguntzeko
Euskadiko Kutxa hurrengo kontu zenbakia
zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

**Emakumeendako doako aholkularitza juri-
dikoa.** Senarrak ez dizula seme-alaben aldeko
mantenu-pentsioa, tratu txarrak sufrizten ari baza-
ra, dirurik ez baina dibortziatu nahi duzula, izateko
bikotearen eta ezkontzearen aldeak...
Emakumearen Bilgunea jo, Altsasuko Gure Etxean
(948 564 823 edo berdintasuna@altsasu.net).

**Ezgaituen Elkarrekin bazkideak eta lagun-
tzaileak behar ditu.** Sakanako Ezgaituen
Elkarrekin bazkide kanpaina martxoan jarri du.
Horretarako 660 29 96 17 telefonora hots egin
behar da. Bestalde, Sakanako ezgaituek aisia
behar dute. Laguntzaileak izan nahi baduzu deitu
649 189 249 (Eladia). Eskerrik asko Sakanako
Ezgaituen Elkarrekin.

Itzulpen zerbitzua. Sakanako
Mankomunitatearen zerbitzua iberreko udalek eta
mankomunitateek, komertzioek, enpresek eta
elkarrekin erabil dezakete urte guztian zehar.
Doakoa da. Itzuli beharrekokoak jendaurrean edo
agerian egon behar duen testua izan behar du.
Eskariak mankomunitateko euskara zerbitzura
egin behar dira (948 464 840 edo
itzulpen@sakana-mank.com) Ez dira bilerak edo
aktak itzuliko, ezta Nafarroako Aldizkari
Ofizialean argitaratuko den ezer ere. Gehienez ere
5 orrialdeko dokumentuak itzuliko dira.

AUTOMOBILISMOA

JAUURITAKO RALLYSPRINTA BERTAN
BEHERA: Sakana Motorsportek I. Neguko
 Rallysprinta antolatu behar zuen igandean

Jaurrietan, baina bertan behera uztea erabaki du ez dagoelako elurrik. II. Olaztiko Rallysprinta maiatzaren 24an jokatuko da.

Mendia

Alex Txikon Arbizon

Alex Txikon mendizale ezaguna Arbizona hurbilduko da gaur. Karakorumen neguantitulupean, hitzaldia eta proiektzioa eskainiko du Argi Bidea elkartean, 22:00etan. Lemoarra mendizalea, aizkolaria, txirrindularia, parapentelaria eta kirolari amorratua da, eta bere espedizio eta desafio aski ezagunak dira. Haietaz galdetzeko aukera izanen da gaur Arbizon.

Atletismoa



Javi Moreno podiumean. UTZITAKOAK

Javi Moreno bigarrena Beasainen

7 km-tako proban 6 sakandar aritu ziren eta 14 km-takoan 7

Korrikalari sakandar asko hurbildu ziren igandean Beasainera, Beasaingo IV. Herri Lasterketan parte hartuz. 13 sakandar guztira. Bi proba jokatu ziren, 7 km-takoa eta 14 km-takoa. Proba laburrean Ricardo Velea gailendu zen (23:26) eta Javi Moreno altsasuarra bigarrena iritsi zen helmugara (23:40). Aldiz, proba luzean Ritxar Fernandez izan zen txapelduna (47:35) eta Felix Benjumea lehen sakandarra, helmugara 14.a heldu eta gero (50:46).

Sakandarrak Beasaingo IV. Herri Lasterketan:

7 km		
1.	Ricardo Velea	23:26
2.	Javi Moreno	23:40
11.	Iban Gonzalez	25:24
47.	Maite Zabaleta	32:21
48.	Saray Garasa	33:00
73.	Beatriz Arguelles	36:02
74.	Jon Garasa	36:02

14 km		
1.	Ritxar Fernandez	47:35
14.	Felix Benjumea	50:46
57.	Juantxo Arregi	54:11
117.	Juan Carlos Perez	59:17
166.	Migel Angel San Martin	1:02:51
200.	Erkuden San Martin	1:06:38
232.	Igone Moreno	1:13:55
240.	Ixa San Martin	1:16:06

Mendi txirrindularitza

Otxoak eta Irigoienek hasi dute denboraldia

Igandean Rural Kutxa BTT Kopako baliagarria den lehen proba jokatu zen, Izkuen. Patxi Zia izan zen jaun eta jabe (1:44:24). Izurdiagako Mikel Otxoa 26.a izan zen helmugan (2:04:57), 23 urtez azpiko sailkapenean hirugarrena, eta Mikel Irigoien hartearra 55.a (2:06:19), 23 urtez azpikoan seigarrena.

Atletismoa

Emakumeak Lilasterketara!

ALTSASUKO EMAKUMEEN BILGUNEAK EMAKUMEENDAKO LASTERKETA ANTOLATU DU IGANDEAN 12:00ETAN

Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Egurenaren ildora, hainbat ekitaldi antolatu ditu Altsasuko Udalak, Emakumeen Bilgunearen bitartez. Tartean, eta nobedade moduan, igandean, hilak 16, 12:00etan, abiatuko den Lilasterketa dago, Dantzaleku Sakana Atletismo Klubaren eta DYaren laguntzarekin antolatutakoa. Igandean Donostian antolatutako Lilatoia eredu hartuta, Altsasun emakumeen lasterketa bat antolatu nahi izan dute eta igandean zapatilak, patinak edo dena delakoa jantzi eta kalera ateratzera animatu dituzte emakumeak.

Emakume guztiek egiteko moduko proba

Izan ere, berdintasunaren aldeko lasterketa hau ez da proba lehiakorra izango. Korrika, oinez, patinetan, bizikletan... norberak ahal duen moduan proba egiteko aukera izango du, helburua emakumeen



Igandean sakandar asko aritu ziren Lilatoian. Ea Lilasterketara animatzen diren!

en parte hartzea sustatzea delako, 0-99 urte bitarteko emakumeena. Probak San Silbestrearen ibilbide bera izango du, 4 km ingurukoa, Foru plazatik aterata. Bukeraren parte hartzaileendako hamaketakoa izanen da.

Izena ematea

Izena ematea dohainik da. Aurretik www.dantzalekusakana.com web orrian, eta egunean bertan, 11:30ean, Gure Etxean.

Txirrindularitza

Ametsari agur

PABLO URTASUNEN PINOROAD TALDEA DESAGERTU DA

Azkenean ezinezkoa izan da. Pino-Road taldeak ez du lortu premiazkoa zuen babes ekonomikoa eta talde txiletarra desagertu egin da. Pablo Urtasun txirrindulari urdiaindarra talderik gabe gelditu da.

PinoRoad kategoria kontinentaleko taldea zen eta 17 kide osatzen zuten. Otsailaren 5ean taldea Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasunean (UCI) inskribatu zuten Txileko Txirrindularitza Federazioaren bidez, baina handik gutxira lehertu zen egoera, taldeko manager nagusi Juan Pablo Pino Zuñiga desagertu egin zenean. Ustezko iruzurra eta agiri-faltsu-

Denborak esango du



Egoera oso korapilotsua izan da, sinesgaitza eta sekulako kulebroia. "Certatutakoa gertatuta, oso zaila zen denbora gutxian taldeak jarraitu ahal izateko babes ekonomikoa lortzea" adierazi digu taldeko kide zen Pablo Urtasunek. Talderik gabe geratu da Pablo, eta Urdiaingo txirrindulariak aitortu digunez, epe motzean oraindik ez daki zer egingen duen. "Momentuz entrenatzen jarraituko dut eta ikusiko dut zer egin, zein bide hartu" esan digu. Euskaltel-Euskadi taldeko txirrindulari sakandarrek ezin izan dute tropelean jarraitu. Egoi Martinezek txirrindularitza uztea erabaki zuen, Jorge Azanza eta Gorka Verdugo talderik gabe daude eta nahiz eta Pablo Urtasunek hasiera batean taldea topatu, talderik gabe geratu da. Denborak esango du.

tzea leporatu zioten, balio ez zuten kontratu eta notario-zigiluak tarte. Taldekideak ondoren kontratu ziren Pinok egindako kontratuak faltsuak zirela, hornitzailei ez zitzaizela ordaindu eta beste hainbat irregulartasun gertatu

zirela. Pino desagertuta eta dirurik gabe, taldeak jarraitu ahal izateko beharrezkoa zuen babes ekonomikoa lortzen saiatu da, baina alferrik, eta taldeak bere ibilbideari agur esatea erabaki du, behin betiko.

Duatloia



Aurreko urteko Arbizuko duatloia.

Sakana Triatloi Taldearen aurkezpena

Larunbatean, 11:00etan Zelandin

Sakana Triatloi Taldeak 2014ko denboraldiaren aurkezpena egingen du larunbatean, 11:00etan, Altsasuko Zelandi kiroldegian. Batetik, klubeko kideen aurkezpena egingen da, eta, bestetik, martxoaren 22an Altsasun eta mar-

txoaren 29an Arbizon jokatuko diren duatloi probak aurkeztuko dira.

Altsasuko eta Arbizuko duatloietan izena emateko

Martxoaren 22ko Altsasuko duatloian eta martxoaren 29ko Arbi-

Sakandarrak Lilatoian

Mari Gwen Davies urdiaindarra izan zen lehen sakandarra

Emakume sakandarrak Lilatoian


1.	Izaro Rubio	17:58
43.	Mari Gwen Davies	22:03
159.	Isabel Pozueta	24:47
257.	Miren Berastegi	25:51
407.	Maitane Txueka	27:37
673.	Nerea Berastegi	29:14
1142.	Katrin Ginea	31:20
1143.	Itziar Razkin	31:20
1252.	Jaione Mendinueta	31:46
1253.	Idoia Sanzol	31:46
1435.	Mari Jose Lopez	32:25
1553.	Orreaga Zubeldia	32:44
1265.	Aizaga Zeberio	34:07
2328.	Anttoni Petriati	35:14
2854.	Idoia Lazkoz	37:17

Igandean 25 urte bete zituen Lilatoiak, Donostiako emakumeen lasterketa herrikoia. Inoiz baino arrakastatsua izan zen proba, 3.150 emakumezko osatu baitzituzten probak zituen 5 kilometroak. Azkarrena Izaro Rubio ordiziaria izan zen (17:58). Makina bat sakandarrek parte hartu zuten proban, eta azkarrena Mari Gwen Davies urdiaindarra izan zen (22:03). Arbizuko talde txo bat ere aritu zen, azken egun hauetan Juantxo Zabalen laguntzarekin entrenatzen aritu dena. Ea larunbatean Altsasuko proban korri egitera animatzen diren!

Txirrindularitza

Erbiti, Paris-Nizan

Igandean hasi zen Paris-Niza lasterketa ezaguna. Bertanari da lehiatzen Movistarreko Imanol Erbiti hiriberriarra. Atzoko emaitzen faltan, asteazkenean Skyko Thomas zen liderra. Imanol Erbiti 100.a zen, 4:15era.



AFZIONATUEK BI LASTERKETA

23 urtez azpiko eta elite mailako txirrindulariek bi lasterketa dituzte. Larunbatean Urretxun bilduko dira, 10:00etan (107,9 km), Euskaldun Txapelketarako baliagarria den 33. Kutxabank sari nagusia. Igandean, berriz, Obanosen dute lasterketa, 10:00etan (126 km).

zuko duatloian izena emateko www.navarratriatlon.com web orrian egin behar da izena ematea.

Iñaki Gallego Basaurin

Basauriko 18. Duatloian (6,2 km korrika, 19,9 km bizikletan eta 2,9 km korrikan) Oier Ariznabarreta (1:04:38) eta Ana Casares (1:17:50) izan ziren azkarrenak. Sakana Triatloi Taldeko Iñaki Gallego 159.a izan zen (1:31:31).

Areto futbola

Interren kontra errebantxa hartzera

OSTIRALEAN INTER MOVISTARREN KONTRA 3-0 GALDU ETA GERO, ATZO ATZERA ERE INTER IZAN ZUEN ARERIO MAGNA NAFARROA XOTAK ESPAINIAKO KOPAN

Ostiralean, ligan, Magna Nafarroa Xotari 3-0 irabazi zion Inter Movistar liderrak. Partida guztian dominatu zuen Inter liderrak. Hala ere, Irurtzongo taldeak aurrea eman zuen uneoro. Magna oso kritikoa azaldu zen arbitroekin. "Batere gustatu ez zaizkidan gauzak egon dira, esaterako bi eraso; bat oso argia, txartel bat ikusi gabe ere geratu direnak. Baina, tamalez, ohituta gaude. Niretako hori oso larria da. Arbitroek ez dute asmatu" adierazi zuen Imanol Arregik.

Inter Movistarrek lidergoa sendotu du, 61 punturekin. Magna Nafarroa 5. postuari eusten dio, 34 punturekin.

Espainiako Kopa

Asteburu honetan ez da ligako partidarik jokatu, atzotik igandera bitartean Espainiako Kopa jokatu ari delako, Logroñon. Eta hain zuzen ere, Kopako final laurdenetan Magna Nafarroa Xotak Inter Movistar izan zuen arerio atzo. Guaixe publikatzerakoan

Haurren mailako Xota ere Kopan lehiatuko da



Xota kirol klubeko haurren mailako areto futbol taldeak Espainiako Kopan hartuko du parte. Elitekoak bezala, Inter Movistar taldeko haurren mailako taldearen kontra ariko dira irurtzundarrak. Xotako Vicente Albizu "Bisuk" eta Igor Etxarrik ondoko taldea hautatu dute: Mikel Rekalde eta Izan Castro atezainak, Alvaro Ortega, Mikel Barberena, eta Xabier Erbiti defentsak, Javier Amezketa, Iñaki Ruiz de Erentxun, Aitor Albizu, Julen Martirena eta Eneko Margako hegalka eta Iker Ansorena, Ander Pardo, Angel Mari Villar eta Asier Jimenez aurrelariak. Ea zorzea duten.

oraindik ez genuen emaitzaren berririk, baina irurtzundarrek errebantxa hartzeko aukera izatea espero dugu. Atzoko talde irabazle larunbatean jokatu diren finalerdietarako sailkatuko da, eta Marfil Santa Coloma eta El Pozo

Murcia partidaren arteko garai-lean kontra jokatu beharko du. Gainontzeko final laurdenetan, Barcelonak Rios Renovables zuen aurkari eta Santiago Futsalek Montesinos Jumilla. Final handia igandean jokatu da.

Mendi kasterketak

Aritz Munarriz 14.a Zuzenien igoera bertikalean

Didier Zago izan zen azkarrena



Aritz Munarriz, gora.

Sakandarrak VI. Zuzenien igoera bertikalean:

1.	Didier Zago	28:14
14.	Aritz Munarriz	32:30
19.	Adur Maiza	32:52
43.	Fidel Jimenez	34:55
44.	Beñat Katarain	35:08
50.	Mikel Berastegi	35:51
55.	Fernando Igoa	36:26
60.	Alatz Agirre	36:55
68.	Mikel Satrustegi	37:54
80.	Iraitz Senar	39:37
91.	Mikel Iriarte	41:27

Igandean 113 korrikalarik osatu zuten, Azpeitian, VI. Zuzenien Igoera Bertikala (2,8 km). Didier Zago izan zen azkarrena (28:14). Proban 10 sakandarrek hartu zuten parte eta Aritz Munarriz etxarriarra izan zen azkarrena, helmugara 14. postuan iritsi eta gero (32:30).

Mendi kasterketak

Ricky Cardus, Mariñelarenaren ordezkoko

IRURTZUNGO PILOTUAK SAINT-ANNE OSPITALEAN JARRAITZEN DU

Tech3 eskuderia frantziarrak adierazi duenez, Ricky Cardus pilotu katalanak ordezkatu du Alex Mariñelarena berriki Qatarren hasiko den Munduko Motoziklismo Txapelketan. Taldeak adierazi duenez, Cardusek Mariñelarenaren tokia beteko du irurtzundarra errekupeatu eta lasterketetan parte hartzeko gai izan arte. Cardus asteartean hasi zen Tech3

eskuderiaren Mistral 610 motorrekin lanean, Jerez. "Kontentua nago Tech3 Racing Team taldearekin mundialean parte hartzeko aukera dudalako, eta alde horretatik eskerrak eman nahi dizkiot taldeari, baina hau beste modu batean izatea gustatuko litzaidake, ez Alex zauritua dagoelako. Espero dut Alex berehala osatzea eta aurki lasterketetan ikustea".

Errekupeazioko hasiera fasean dago Mariñelarena



Mariñelarenak otsailaren 27an istripu larria izan zuen Paul Ricard zirkuituan. Ia aste bat eman zuen koma-induzitu egoeran eta aurreko asteazkenean esnatu zen. Touloneko Saint-Anne ospitalean jarraitzen du. Bere errekupeazioren hasieran ez dago besterik, eta medikuek ez dakite noiz osatuko den guztiz. Itxarotea, ez dago besterik. "Oraindik Saint-Anne ospitalean dago, UCIn. Tarteka esnatzen da eta burua ongi du. Ezagutzen gaitu, senitartekoekin, medikuekin, bere mekanikariekin... hitz egiten du baina oso nekatua dago, oinazeak ditu eta lotan ematen du denbora asko. Animoz ere tarteka nahiko jota dago. Baina osatze prozesua bide onetik doa. Hala ere, errekupeazioko hasiera fasean gaude oraindik" azaldu digu Alexen osaba Albertok. Tech3 eskuderiako lankideek animo mezuak bidali dizkiote.

Bukatu dira txantxak

FUTSAL SAKANA TXAPELKETAKO PLAY OFFETAKO FINAL ERDIETARA SAILKATU DIRA RACING SAN MIGEL, BUNKER, BIL TOKI ETA ARBIZU

Futsal Sakana txapelketako titulua erabakitzeko play off-etako final laurdenak jokatu dira dagoeneko. Ligako txapelkunak, Racing San Migelek, zuzenean finalerdietara sailkatzea lortu zuen, eta aurreko astean Bunkerrek 4-9 irabazi zion Auzomotojorik taldeari, final erdietako beste txartela lortuz. Asteburu honetan play off-etako beste bi partidak jokatu dira eta Arbizuk eta Bil Tokik lortu dute sailkatzea, euren partidak irabazi eta gero.

Arbizu eta Iturmendiren arteko partidak bi taldeak pare pare aritu ziren, baina bukaeran 4-1 irabazi zuen Arbizuk. Beste final laurdenean, Bil Tokik 7-1 hartu zuen menpean baja inportanteekin kantzara atera zen Etxarriko Gaztetxie. Asteburuan play off-etako finalerdia jokatu dira.

Futsalsakana Kopan izena emateko epea zabalik

Futsal Sakanako play-off-etako final handia jokatu eta gero, Futsalsakana Kopa abiatuko da. Kopan parte hartu nahi duten taldeek izena eman beharko dute admin@futsalsakana.es posta elektronikoa.

Anaitasunako 48 ordutarako taldea sortu dute

Garagarriaren hasiko da Anaitasunako Areto Futboleko 48 ordutako taldea eman duten taldeen artean

Play-off-etako final erdiak (asteburuan)

Arbizu - Bil Toki
Racing S.Migel - Bunker

Futsal Sakana txapelketatik sortutako selekzioa dago. Taldeak asteazkenean egin zuen lehen entrenamendua, Uharteko Arakilen. 19:30ean. Igandean partida jokatu dute FS5 Navarra selekzioaren kontra, 11:00etan, Irurtzunen.

Ondoko jokalariek osatuko dute Futsalsakana.es selekzioa: Jon Yeregui, Josu Reparaz eta Iñaki Galarza (Arbizu), Unai Bobillo eta Raul Lage (Bil Toki), Ruben Ramos eta Juan Carlos Cano (Bunker), Mikel Aingeru Goñi eta Arkaitz Munarriz (Etxarriko Gaztetxie), Imanol Arbizu eta Urko Agirre (Iturmendi) eta Daniel Alvarez, Asier Turumbay eta Eneko Cruz (Racing San Migel).

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

3. MAILA

28. JARDUNALDIA

IRUÑA 1 - LAGUN ARTEA 1
Lehen zatia oso lehiatua izan zen. Iruña dominatzen hasi zen baina Unai Bakaikoa bantatik gora eraman zuen baloia, arerio guztiak gaindituz, eta Xabati pase bikaina eman zion, hark Iruñaren atean sartu zuen. Tamalez Iruñak berdintzea lortu zuen. Lagunek Agustinek geldialdi bikaina egin zuen eta puntu ederra ekarri zuen Lagunek.

Sailkapena >>

1.	San Juan	64 p
16.	Lagun Artea	28 p

Asteburuko jardunaldia

LAGUN ARTEA - PAMPLONA
(Igandean, 17:00etan, Lakuntzan)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

23. JARDUNALDIA

LAGUN ARTEA B 1 - AMAYA 1

LAGUNAK B 2 - ALTSASU 1

ETXARRI ARANATZ 1 - SAN JORGE 3

Lehia politean, Lagun Artea B-k eta Amayak bana berdintu zuten. Hasieran sendoago aritu zen Amaya eta 10. minutuan aurreratu egin zen. Gutxinaka Lagunek bere jokoak egiteko aukera izan zuen eta Imanolek berdintzea lortu zuen. Barañainen, Lagunak partida irabaztera atera zen. Altsasuk nahikoa izan zuen defendatzearekin. Lagunak 2-0 aurreratu zen eta partida bukatzeko 2 minuturen faltan Xabik Altsasuren gola sartu zuen. Tamalez, partidari buelta emateko beranduegi zen. Bukatzeko, etxean 1-3 irabazi zion San Jorgek Etxarriari. Lehen zatian Etxarrik dominatu zuen, nagusitasun handiz. Pabok, penaltiz, Etxarriren gola sartu zuen. San Jorgek, penaltiz ere, berdintzea lortu zuen. 2. zatian San Jorgek zorzea alde izan zuen eta Etxarriren atera iritsitako bi jokaldietan gola sartzea lortu zuen.

Sailkapena >>

1.	Lekunberriko Beti Kozkor	50 p
4.	Lagun Artea B	39 p
12.	Altsasu	29 p
15.	Etxarri Aranatz	19 p

Asteburuko jardunaldia

BAZTAN - LAGUN ARTEA B
(Igandean, 16:30ean, Elizondon)

ALTSASU - ARDOI
(Larunbatean, 16:30ean, Altsasun)

UNIV. DE NAVARRA - ETXARRI ARANATZ
(Igandean, 18:30ean, Iruñean)

Futbola



Topaketetako partida bat.

SAKANAKO FUTBOL 8 TOPAKETAK 14. jardunaldiaren txanda

Igandean Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatutako kimuen mailako Sakanako Futbol 8 Topaketetako 14. jardunaldia jokatu da Altsasuko Dantzalekun.

14. jardunaldia

Igandean, Altsasuko Dantzalekun

11:30ean: Urdiain - Tipi Tapa

11:30ean: Arbizu K.T. - Dantzaleku

12:30ean: Txartel - Sayas

12:30ean: Etxarri Aranatz - Kaixo

Atsedena: Lagun Artea

Borroka olinpikoa

Sara Lizarragak brontzeko domina lortu du

Martxoaren hasieran Espainiako Junior Mailako Borroka Olinpiko Txapelketak jokatu ziren Madril. Nafarroako selekzioa 14 kirolarik osatu zuten, guztiak Burlatako Borroka Klubeko kideak. Nafarroak 10 domina lortu zituen eta, tartean, Sara Lizarraga arbitrarrik brontzeko domina kolkoratu zuen 51 kiloko junior mailako emakumeen borrokan.

Mendia



Igandean Plazaolara Sakanako ikastolekin

Gero bazkaltzera bilduko dira Arruazuko ostatuan

Sakanako Ikastolen Mendi Taldeak iganderako txango ederra antolatuko du, etxeko txikiekin batera egitekoa. Etxarriko ikastolan goizeko 9:30ean jarri dute hitzordua, igandean, eta handik Lekunberrira joango dira. Plazaolako ibilbidetik zehar 6 km-ko txangoa egitea da proposamena, pista bideetatik. Ondoren bazkaria egingo da Arruazuko ostatuan (helduek 17 euro eta haurrek 7 euro). Bazkaltzera joan nahi duenak, alde zurretik izena eman beharko du ikastolan ostiral eguerdia baino lehen. Jakina denez, guraso edo helduren bat izan beharko da ume bakoitzaren arduraduna.

ZIGA-LANTZ SAKANAKO MENDIZALEEKIN

Sakanako Mendizaleak taldeak mendia ibilbide polita antolatu dute iganderako, Baztango Zigatik Lantzera bitartekoa. Autobusa goizeko 7:00etan aterako da Olazitik eta Sakanako herrietan geldialdiak egingen ditu. Izena emateko ohiko tokitan edo 639 11 76 31 telefonon.

Saskibaloia

Sakanako saskibaloitopaketan 10. jardunaldia Etxarrin

Mank-ek Sakanako I. Saskibaloitopaketak antolatu ditu premi mailako taldeendako (8 urtetik 10 urtera bitarteko neska-mutikoak). Igandean 10. jardunaldia hartuko du Etxarri Aranazko eskoletako kiroldegia.

10. jardunaldia

Igandean, Etxarri Aranazko eskoletan

11:00etan: Beriain - Putterri

12:00etan: Balankaleku - Martin-sasti

Pala

Gure Pilota txapeldun

27. NAFAR KIROL JOLASEN EMAKUMEZKOEN PALETA GOMAKO FINAL GUZTIETAN ETXARRI ARANAZKO TALDEKO PALISTAK ARITU ZIREN

Larunbatean 27. Nafar Kirol Jolasen emakumezkoen paleta gomako finalak jokatu ziren Labriten. Etxarri Aranazko Gure Pilota taldeko palistak final guztietarako sailkatu ziren, eta jokatu zuten 4 finalerdiak hirutan gailendu ziren.

Finalak:

Kimuak: Otxoa-Bergera (Gure Pilota) 18 - Lasa-Erdozia (Gure Pilota) 15

Haurrak: Gomez-Igoa (Gure Pilota) 25 - Saragüeta-Erra (Añamendi) 21

Kadeteak: Atxa-Mendinueta (Gure Pilota) 25 - Jaka-Parot (Gure Pilota) 23

Jubenilak: Murillo-Lusarreta (Oberena) 25 - Ansotegi-Lasa (Gure Pilota) 15



Nafar Kirol Jolasetako txapeldunak.

Atxa-Uxue Euskal Herriko Ligako txapeldun



Larunbatean Euskal Herriko Elkarten arteko Ligako finalak jokatu ziren Zierbenan. Kadeteen mailako finala Etxarri Aranazko Gure Pilota elkarte bi bikoek jokatu zuten, Atxa-Uxue eta Andrea-Izar. Lehendabizikoak nagusitu ziren, 30-25. Zorionak!

Pilota

Bizirik daude

XALA-ZUBIETA FINALERDIETARAKO SAILKATUTA DAUDE, BIRTUALKI. EZKURDIA ETA ZABAETA BUKAERARA ARTE DENA EMATEKO PREST DAUDE



Zabala, Saralegi, Ezkurdia eta Zabaleta asteazkenean, Bergaran. ASPE

Sailkapena:

Olaizola II.a-Aretxabaleta	9 puntu
Irujo-Barriola	9 puntu
Xala-Zubieta	7 puntu
Titin III.a-Merino II.a	6 puntu
Urrutikoetxea-Beroiz	5 puntu
Berasaluze II.a-Albisu	4 puntu
Ezkurdia-Zabaleta	4 puntu
Saralegi-Zabala	4 puntu

Bi jardunaldi geratzen dira Binakako hasiera ligaxka despeditzeko. Olaizola II.a-Aretxabaleta eta Irujo-Barriola finalerdiatarako sailkatuta daude. Xala eta Zubieta birtualki sailkatuta daude ere, eta azke-

neko bikoia zein izango den jakitea falta da. Gaintzeko 5 bikoteek izan badituzte sailkatzeko aukerak, baina batzuk beste batzuk baino gehiago. Nahiz eta Ezkurdia eta Zabaleta ligaxka despeditzeko falta diren bi partidak irabazi beharrean izan eta hainbat karanbola gertatzea derrigorrezko izan, sorpresa emateko prest daude. Beraz, ligaxkako azken bi jardunaldi hauek hil ala bizikoak izango dira.

Irabaztera

Azkeneko jardunaldian, Xalaxka eta Zubietak 22-20 hartu zituzten menpean Oinatz Bengoetxea eta Zabala, asko sufrituta. Eta Ezkurdia eta Zabaletak orain arteko partidarik onena jokatu zuten eta Berasaluzeko Albulu 19-22 irabazi zieten. Ea ostiralean, Bergaran, joko berberarekin euren puntu berberak dituzten Bengoetxea ordezkatuko duen Saralegi eta Zabala menperatzeko gai diren. Bestalde, Xalaxka eta Zubietak Irujo eta Barriola izanen dituzte aurkari larunbatean Labriten.

13. jardunaldia

Saralegi-Zabala/Ezkurdia-Zabaleta (ostiralean Bergaran. ETB1)

Xala-Zubieta / Irujo-Barriola (larunbatean Labriten)

Olaizola II.a-Aretxabaleta / Titin-Merino (larunbatean Marikan. NITRO)

Berasaluze II.a-Albisu / Urrutikoetxea-Beroiz (igandean Bilbon. ETB1)

Trinketean Aristorena txapeldunorde

Ostiralean Nafarroako Trinkete Txapelketako emakumezkoen paleta gomako txapelketako senior mailako finala jokatu zen Mendillorin. Oberenako bi bikoek jokatu zuten finala: Judith Etxarri-Rebeka Kontineta Yanira Aristorena-Haizea Zamora. Lehendabizikoak gailendu ziren, 30-22.



Nonerabili

TEXARTU

IRUÑEA

Eskaintza kanpainaren arabera.

CLINKER

OLAZTI

Menuarekin kafea eta kopa doan.

SORKUNDE HARATEGIA

ALTSASU

50 €ko erosketetan etxeko produktoa doan.

BERRIA EGUNKARIA

Harpidetza eginez gero %50eko deskontua.

IKER KIROLAK

ALTSASU

50 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketan erabiltzeko.

URGAIN ALBAITARITZA ZENTROA

ETXARRI ARANATZ

%20ko deskontua kontsultan.

BASOMUTUR

ALTSASU

Menuan eta kartan %6ko deskontua.

BILTOKI TABERNA

ALTSASU

Eguneko menuan, kafea doakoa. Karta menuan, kopa doakoa.

IÑAKI OINETAKOAK

ETXARRI ARANATZ

50€ko gastuarekin, %10eko deskontu-balea.

GERTU SAKANA

ALTSASU

Sukalderako tresnerian 50€ko erosketa egitean %10eko deskontu balea hurrengo erosketarako.

AINHOA ESTETIKA

IRURTZUN

2 produktu erosita, %10eko deskontua.

www.guaixe.net-en zerranda osoa ikusgai



PIRATAK HARTUKO DU LIBURUTEGIA: Gaur, 18:30ean, Ziordiko liburutegian, Pirata Garrapataren abenturak ezagutzeko aukera izanen da Ziordiko liburutegian.

Antzerkia, txotxongiloak, magia eta malabareak tartekatzen diren istorio koloretsua da Patata Tropikalak eskaintzen duena eta naturaren aldeko aldarria egiten du.



Ondarraren musika eskura

AusArt diskoetxearekin batera Bierrik Fundazioak, bere bazkide eta sakandar musikazale guztiei, Sakanako musikari handi baten obra eskuratzeko aukera emandie: Lorenzo Ondarra Kintana (1931-11-20 / 2012-04-04) organo-jotzailea eta musikagilearen lana. XX. mendeko bigarren erdialdeko eta XXI. mendeko hasierako musikari nabarmenetako bat da Ondarra. Konposizioa, partitura zaharrak berreskuratu, moldaketak egin eta beste egileen partiturak transkribatu zituen. Diskoetxearen eta fundazioaren eskaintzaren bidez melomanoek disko bat edo bi eskuratzeko aukera izanen dute.

Eskaintzako lehen diskoa *In Memoriam Lorenzo Ondarra* da. Bakaikuarraren omenez egindako diskoan musikariak berak jotako obra koral sakroak eta profanoak ditu, baita txisturako eta Bach, Clokey eta Diezenak ere.

Bigarren diskoak *Lorenzo Ondarra kontzertuan* izenburua du. Organujole bakaikuarrak Donostiako kaputxinoen elizan egindako kontzertua jasotzen du. Pachelbel, Bach, Elduayen, Donostia, Messiaen, Zimmermann, Clokey eta Diez egileen obrak interpretatu zituen Ondarrak.

Eskaerak

Apribilaren 4ra arte egin daitezke eskaerak, 948564275 edo 948562107 telefonoetara hots eginez edo bierrik@guaixe.net e-postara idatziz. Bazkideek disko bakoitzeko 9 euro ordaindu beharko dituzte eta ez direnek 10,5. Bestalde, 10 disko edo gehiago eskatzen dituzten taldeek ale bakoitzagatik 8 euro ordaindu beharko dituzte. Aurreneko eskaerak oparia jasoko dute.

Martxoaren 14an, ostiralean, 20:00etan eta 22:30ean. Martxoaren 15ean, larunbatean, 20:00etan eta martxoaren 16an, igandean, 19:00etan Irurtzango kultur etxean Irurtzango antzerki tailerraren azken antzelanaren mustutzea

Carlos Arnichesen *Los caciaques* obraren moldaketa libre batekin aterako da eszenatokira gaur Irurtzango antzerki tailerra. Angel Sagues zuzendariak egokitu egin du 1920ko antzezlanaren eta *De Tontos y otras especies* izenburua eman dio. Hark esan digunez, "istorio dibertigarria kontatzen da, baina badu salaketa sozialetik eta kritikatik pixka bat".

Jatorrizkoan herria kontrolatzen zuen alkate-kazikearen eta haren alabaren eskua eskatzera etorritakoen artean gaizki ulertuak sortzen ziren, lehenak udaleko kontuak aztertzeraz etortzen diren ikuskariak direla uste baitu. Zuzendariak esan digunez, "egitura mantendu dut, baina tailerrean jende asko dagoenez, egokitzapen handiak egin ditut, aktore bakoitzak joko izateko". Aldi berean, Sagues saiatu da obrako pertsonaien izenak eta tokia, baita egoera politiko-soziala gaur egunera gerturatzen.

Tontoekin batera, lotsagabeak, astakirtenak, aukerazaleak, agintea maite dutenak, inozoak, maitaberak... denetariko espezieak

daude. Eta gertu baditugu "areagotuak" agertzen dira. Gertu ditugunez, gutxienez haiekin ongi pasatzea eta inoiz onuraren bat lortzea litzateke kontua. Denetariko pertsonaiak, beraz, eszenatokian ikusiko ditugunak. Obrak hiru akto ditu eta arku moduko bastidore mugikor batzuk izanen dira hiru dekoratu osatuko dituztenak.

Hamalau

Sagues pozik dago antzezleekin dagoen lanarekin, "nahiko langileak dira". Haietatik hiru hasi berriak dira: Agurtzane Urteaga, Xabier Loriente eta Txus Abad. Orain dela bi urte aritu zen taldean, baina pasa den urteko etena-

Kanpora

Irurtzango lau emanaldien ondoren Irurtzango antzerki tailerrak antzezlanaren Castejonon (martxoaren 22an, larunbatean, 20:00etan) eta Berriozarren (apirilaren 6an, igandean, 19:00etan) emanen du.

ren ondoren bueltan da Mariana Espuny. Zuzendaria 14 antzezleekin lastaila erdialdetik dago entsetatzen, asteazkenean, 18:00etatik 20:00etara. Mustutzea bertan denez, aste honetan egunero bildu dira arratsalde, guztia behar bezala prestatzeko.

bazterretik

Laida Aldaz Arrieta

Bideo Artea

Zinema esperimentalaren 20. hamarkadan sortzen den mugimendu artistikoetako bat da. Jarduera berri hau zinema komertzialetik kanpogaratzen da, ordura arte zinemaren ezarritako arauak apurtuz. Artista esperimentalek ez diote narratioari garrantzia ematen eta denborarekin jolastu dute linealtasuna hautsiz. Testura desberdinak esploratzen dituzte, ikusleak, arrazionaltasuna alde batera utziz, sentazio mundu batean sar dadin eta obra nahi duen moduan uler dezan.

Margolan surrealisten eragin handia dute arte honetan. 1929 urtean, Luis Buñuel (zinema zuzendaria) eta Salvador Dalíren (margolaria) arteko kolaborazioaren ondorioz sortutako *Un perro andaluz* obra lehen aldiz proiektatu zen Parisen. Artistek, bi ametsetan inspiratuta, sinbolismo eta metaforaz betetako film labur hausortzen dute, zinema surrealisten obra adierazgarriena bihurtuko dena.

Urte batzuk beranduago, komunikabide berrien agerpen eta teknologiaren aurrerapenekin batera bideo artea sortzen da 1960 inguruan eta honeneraginez baita bideo

instalazioak. Arte mota honek, ikusentzunezko hizkuntzaren bitartez garapen artistikoa du helburu. Parisera joateko aukera baduzue, Bill Viola artistaren atzera begira koerakusketa ikuste gomendatzen dizuet, hau baita gaur egun bideo instalazioaren ordezkarietatik nabarmenenetariko bat. Artista honek mugimenduan jartzen diren margolanak sortzen ditu. Etengabe aldatzen du errealitatea, begiak ikusten duenarekin jolastuz. Metaforaz betetako lanak aurkezten ditu, non bere kezka existentzialak azaltzen dizkigun: nora goaz? Nondik gatoz? Zer da bizitza? Eta



heriotza?... Baina bideo artea oraindik jendeari oso arraroa egiten zaion arte mota da, jende gehienak ez du ulertzen zertarako edota zergatik egiten diren lan gehienak. Obra hauek gehienetan hain abstraktuak dire-

nez askotan desorientatuta uzten dute ikuslea. Zergatik dugu beti gauzak argi edukitzeko beharra? Zergatik ez dugu artista hauek ematen diguten askatasuna balioztatzen? Zergatik behar dugu beti ikusten dugunaz ziur egon?

Txistua, kontzertuko protagonista



Larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. Burundar txistulariak

Erromeria eta festa egunez aparte txistua gehiago entzun beharko litzatekeela uste dute Burundar Txistulariek. Kaleaz aparte kontzertu serioetan ere txistua ikusi eta entzun behar dela uste dute. Horregatik, prestatu du *Hastapenak* izenburuko kontzertua txistu talde burundarrak.

Juan Pablo Urizar eta Rafael Goñi, Burundar Txistulariak taldeko kideak kontzertuaren bezperan esan digute txistuari ospea eman nahi diotela halako emanaldiekin. Azken urteetan txistuak izan duen garapena izugarria izan dela nabarmendu dute. "Garikoitz Mendizabal txistulariak Bratislavako Orkestrearekin (Elovakia) grabatu du *Txistu Symphonik* eta gaurtik Hego Korean bost kontzertu emanen ditu Chun Cheon eta Gyongbook orkestrekin" esan digu Urizarrek.

"Mota guztietako instrumentuekin jotzen dagauregun txistua". Kanean txistuak presentzia galdu badu ere, halako ekimenekin kalitatean irabazi dela nabarmendu du Goñik. Burundar Txistularien asmoa da etorkizunean ere biharakoaren moduko kontzertu serioak edota alardeak egitea, "kanean ez bezala entzun dadila txistua, serio-tasuna berreskuratu eta dagokion tokia hartzeko" esan du Urizarrek.

Kontzertua

Biharko emanaldian 25 bat musikari izanen dira eszenatokian. Perkusioarekin batera, bost silbote eta txistuen lehen eta bigarren ahotsak entzuten dira. Hasteko 1550 urteko partiturak izanen dituzte, berpizkunde garaiko musika, "erreegen gorteetan dantzatzan ziren doinuak" Goñik jakinarazi digunez. Haiekin batera, XIX. mendeko musika klasikoarekin segituko dute eta akaberan XX. mendeko zortziko bat eta kantek osatuko dute egitaraua. Denboran izandako garapen musikala eza-gutzeko aukera izanen da, beraz.

Burundar Txistulariak taldeko 14 kide dira bihar eszenatokian ariko direnak. Eta, haiekin batera, Burlata, Iruñea eta Gasteizko lagunak. "Alardeetan bat egiten dugu eta zerbait antolatzen dugunean elkar laguntzeko prest gaude. Txistuaren profesionalak ez badira, ia" esan du Urrizarrek. "Txistuaren militanteak dira" zehaztu du Goñik. Xabier Garzandia kantari etxarriarra eta Altsasuko Iñaki Agirre eta Etxarriko Iruñe Lizarraga dantzariak parte hartuko dute.

Egitaraua	Egilea
La bataille	Tielman Susato
Lau dantza	Tielman Susato
Amair	Joaquin Iruretagoiena
Kurrusko	Jose Ignacio Ansorena
Arin Arin	Candido Albiztur
Rapsodia	Luis Uterga
A mi tierra vasca	Manuel Turrillas
Itsasontzi baten	Kaxiano
Minueto de Monzon	Vicente Monzon
Suit Edurne	Hilario Olazaran
Agur Jaunak	Urtsale

Zortziko euskaratua

Manuel Turrillasen *A mi tierra vasca* zortziko entzuten da bihar lortia kultur gunean. Burundar Txistulariek, ordea, letra aldatzea erabaki dute. Josema Leitza bertsolari arbizuarrak ibarra aipatzen duen *Sakana, banaka* letra sortu du.

Izen handiak Altsasura

El Brujo, Tricicle eta beste etorriko dira Platea programaren bidez

Platea programa Instituto Nacional de las Artes Escénicas y de la Música (INAEM) Espainiako Udalerri eta Probintzien Federazioarekin elkarlanean sortu dute. Herrietako kultur egoitzetan "ikuskitzuzen zirkulazioa berraktibatze" asmoz sortu dute programa. Estatu osoko 198 herritan 1.200 bat emanaldi egingen dira programa horren bidez. Horretarako 6 milioi euroko aurrekontua dago. Platearen bidez zortzi saio hartuko ditu Altsasuk: dantza saio bat, hiru antzerki, bina familiar-teko antzerki eta kale antzerki.

Toti Martinez de Lezea Etxarrin

Ostegunean, 17:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean

Toti Martinez de Lezea idazlea literaturari buruzko hitzaldia ematera etorriko da ostegunean Etxarri Aranatzera. Andra Mari ikastola arteari buruzko proiektua lantzen ari da eta haren barruan hainbat idazle ikasleekin bildu dira. Oraingoan, ordea, Toti Martinez de Lezea idazlea entzuterako edozeinek joateko aukera izanen du.

Jaiorekin, liburuaz edota filmaz

Gaur, 19:30ean Olatzagutiko liburutegian

Karme Jaio idazle arabarra gaur Olatzagutian bisitan izanen da. Irakurle taldeak hark idatzitako *Amaren eskuak* liburua irakurri du eta hari buruz hizketatuko dira, batzuk eta besteak iritziak trukatu. Ostiralean filma ikusi zutenak ere joan daitezke.

Hedabide berri baten aldeko doinuak

Porke Bravo bizkaitarrak eta Distorsion Toxica (D-Tox) arabarrak kontzertua eskainiko dute bihar Altsasuko gaztetxean, 23:00etatik aurrera. Kontzertua ahotsa.info hedabidearen aldekoa izanen da.

Santanoren action paintinga Iruñean

Emakumeen Nazioarteko Egunazela eta Iruñeko Txoko Feministan Helena Santano Cidek action paintinga egin zuen. Margolari altsasuarrak, Idoia Larrea disko jartzailearen doinuak lagun, koadroa margotu zuen larunbat gauean.

Taldea

Burundar Txistulariak taldea 2008an sortu zen eta "pittinkapittinka ari gaituk lan on bat egiten, nik uste" esan digu Goñik. Zaila dela aitortu arren, kontzertuan orain arte egindako lana erakutsi eta taldekideendako motibazioa izan da emanaldia bera. Aste-an ordu eta erdiko entsegua egiten dute elkarrekin, ostiralero,

19:30ean hasita Altsasuko lortia kultur gunean. Baina horri txistulariek etxean egindako lana gehitu behar zaio.

Urrizarrek eta Goñik azpimarratu dute taldeak atek zabalik dituela: "Lana egin utzi nahi diegu atetik heldu direnei. Esaterako, musika eskoletatik ateratzen diren txistulariei. Hemen non jo badute". Gaineratu dutenez, "hiruzpalau txistulari uzten baditugu, pozik".

CARNICERIA I. ARREGUI
HARATEGI ETA URDAITEGIA

tel. 948 576 067

Sakanako hiltegiaren hildako haragia

Etxeko obradorea:

- tripota
- tripotxa
- mihia
- kalluak
- saltxitxak
- frituak

Herriko plaza z/g LAKUNTZA

Eskuratu GUAIXEekin Lorenzo Ondarra bakaikuar organo jolearen diskoak

9 €
bazkideak

10,50 €
taldeendako eskaintza

8 €
10 CD eskatuta

ESKAERAK: apirilaren 4a baino lehen egin 948 564 275- 948 562 107 telefonoetan edo bierrik@guaixe.net helbidean

Lehenengo eskaerak opari bat jasoko dute

G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 5%	euria: 15%	euria: 46%	euria: 8%	euria: 8%	euria: 25%	euria: 85%	
Min: 3 Max: 17	Min: 4 Max: 11	Min: 5 Max: 10	Min: 3 Max: 16	Min: 5 Max: 16	Min: 6 Max: 10	Min: 5 Max: 9	

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	19.3	-1.7	0.4
Altsasu	18	-0.5	0
Aralar	11	0.8	1.3
Urbasa	15	-4	0

: ilargiaren aldia >>

	ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
	16	24	30	7

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

beleixe guaixe

Marsuko bazkide zozketa

MARSUKO SARIAK:

1. EKAINBERRI KOBAZULOTARAKO 2 SARRERA, GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETEKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA

2. GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETEKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA

TAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA

3. GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETEKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA

4. GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETEKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA

>> 11 galdera

Jaione Iraola Rozas

Altsasuko berdintasun agentea

Testua: Eneida Carreño eta Maider Betelu

- 1. Altsasuko Emakumeen Bilgunean zeintzuk dira lan ildoak?**

Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunaren printzipioa udal administrazioan sartzea; emakumeen kontrako indarkeriari aurre hartzea eta errotik ezabatzea; emakumeak lan munduan erabat txertatzea eta alor horietan garatzea; kultura, ezagutza eta informazioa era ez-sexistaren eraikitzea eta emakumeen erabateko herritar-tasuna lortzea; erabakietan parte hartzea eta balibideez gozatzea.
- 2. Noiztik dago martxan Emakumeen Bilgunea Altsasan?**

1992an emakumeendako gune eta arreta zerbitzu bat sortzeko "Emakumeen Bilgunea" egitasmoa martxan jarri zen eta koordinatzaile bat kontratu zuen udalak. 1998an egoitza finkoa egokitu zion udalak zerbitzuari Gure Etxean. Berdintasunerako Udal Agente lanpostua izendatu zen eta arreta orduak handitu.
- 3. Zein zerbitzu dituzue?**

Batetik, beste sailei, erakundeetara eta instituzioei genero ikuspuntuaren programa guztietan sartzeko aholkularitza behar zaie, dituzten eskaerak erantzunez eta formazioa eskainiz. Bestetik, genero-berdintasunak murrizteko jarduerak antolatzen ditugu: formazioa, sentsibilizazio kanpainak, ikerketak, ikastaroak... Bukatzeko, emakumeendako informazioa eta arreta zerbitzua dugu, emakumeendako doako aholkularitza juridikoa tarteko. Emakumeen kontrako indarkeria kasuetan, banakako eta konfidentzialtasunezko arreta eskaintzen dugu.
- 4. Aholkularitza juridikoan zein da kezkarik nagusia?**

Kontsulta gehienek dibortzioarekin zerikusia dute: eman beharre-



Elkarrizketa osorik www.guaixe.net-en.

- kopausuak, seme-alaben kustodia... baita seme-alaben mantenurako pentsioen eguneratzeak eta pentsioak ordaintzen ez dituzten kasuetan zer egitearekin ere.
- 5. Urtean zehar zer antolatzen duzue?**

Besteak beste, langilegoarendako formazioa, Hezkidetzaren programa antzerkiaren bitartez, Bategarria-dibertigarria programak, gurasoendako tailerrak, Martxoaren 8ko eta Azaroaren 25eko kanpainak, emakumeendako ikastaroak eta tailerrak...
 - 6. Emakume guztiak, eskubide guztiak, egunero. Hori da martxoaren 8rako leloa.**

Krisiaren aitzakiarekin murrizketak pairatzen ari gara, eta hartutako neurriek emakumeengan eragin bortitzagoa dute. Eskubideak zuzenean murriztearen saiakerak ere ematen ari dira, esaterako abortuaren lege-proposamen berria. Aurtengo leloarekin emakumeen eskubideak errespetatu eta bermatzearan alde lan egiteko apustu tinkoa aldarrikatzen dugu.
 - 7. Sakanako emakumeen egoera deskribatuko zenuke?**

Egun emakumeen langabezi tasak gizonenak baino altuagoak dira. Kontutan hartu behar dugu ere lanaldi partzialetan aritzen diren gehienak emakumeak direla, baita lanaldi murriztuak hartzen dituztenak ere. Bestalde, etxeko lanetan aritzen diren gehienak emakumeak dira ere, eta egungo egoeran gero eta gutxiago dira etxeko lanak egiteko norbait kontratatzen dutenak. Gero eta gehiago dira gizarte zerbitzuetara Gizarteratze Errenta eskatzera hurbiltzen diren emakumeak.

- Gero eta emakume gehiago hurbiltzen dira hona langabezia daukela eta, ikastaro edo tailerren eskaintzaren berri izateko, bai euren trebakuntza osatzeko bai eta besteekiko harremanak lantzeko eta esperientziak partekatzeko gune baten bila ere.
- 8. Martxoaren 8a Altsasuko inauterietan tokatu zen aurten.**

Bai. Herritarrei lazotxo morea jantzeko gonbita egin genien.
 - 9. Aurtengo ekimenak zeintzuk izan dira?**

Ostiralean elkarretaratzea egin genuen, eta larunbatean, ihotetan lazotxo morea eraman genuen kalera. Tailerrak ere antolatu ditugu, solasaldi literarioa eta emakumeendako zine saio bereziak eskaintzen ari gara Iortian.
 - 10. Eta igandean, estreinakoz, emakumeendako lasterketa antolatu duzue Altsasan, Lilasterketa.**

Bai, igandean Lilasterketa emakumeendako lasterketa ospatuko dugu, 12:00etan. Emakumeen nazioarteko eguna kalera ateratzeko asmoz sortu zen ekimena, bide batez kirola, jai giroa eta aldarrikapena uztartzeko. Ibilbidea San Silvestrearen berbera da (4 km) eta korrika, oinez, patinatzen... nahi den moduan egin daiteke. Sakanako emakumeak I. Lilasterketan aritzera animatu nahi ditugu.
 - 11. Emakumearen Bilgunearekin harremanetan jartzeko, nora jo?**

Gure Etxeko lehenengo pisuan dago eta bertatik pasatzearekin nahiko (948 564 823 telefonoa, berdintasuna@altsasu.net-e-posta, facebook (emakumeenbilgunea.altsasu) eta twitter (EBilgunea).

erakusketen aurre-ekoizpena

horma-irudien diseinua, argazkiak eta dokumentuak digitalizatzea, testuak sortzea...

Guaixe

KOMUNIKAZIOA

diseinua & inprimatzea

guaixekomunikazioa.blogspot.com 948 562 107 argi@guaixe.net